

Juan San Martin

EUSKERAREN INGURUAN

HATSAPENAK - 2

EUSKALDUN ZERTAKO?

Euskaldun zertako?, askok galdetzen dute. Egia esan, zertako? Munduaren une txiki batean bakarrik mintzatzen baita. Haurrak eskola ikasteko kalte egiten bai du euskerak. Eskoletako ikasbideak erderentzako edo erderen bidez gertaturik daudela, eta ez euskerak berak hortarako dohainik ez duelako. Ofizialtasunik ez duelako baizik. Ez zenbaitek uste duan bezala hortarako gai ez delako, baizik bere ahalmenei biderik ematen etzaielako. Baina jende ez-jakinak ez daki holakorik, jende arruntarentzat azaletikako itxurek bakarrik balio dute. Eta jende arruntaren arteko sartzen ditut hemen erderazko unibersidadeetan beren karrerak egin dituenak ere, baldin handik aparte gure hizkuntzaren inguruan biltzen dan kultura ezagutzen ez badute. Erderetan jakitun izateak ez dio euskeran ere beren aburuak izateko eskubiderik ematen. Baina iduritzen zait,

maiz, beren ezjakinezko, berek ezagutzen ez dituzten gauzak, beren burua txikiago ez ikustearren, estudiatu beharrean gutxietsiz baztertzen dituztela. Hau izan da gehienen joera.

Jakina, gauza guztien balioa zer mailatetik eta zertarako begiratzen zaien gora-beheran dago. Eta horrek kondizionatzen ditu. Galdera nundik eta zertarako datorrenik gabe, nornahik bat-batean galdeko balida: «Euskaldun zertako?». Ez nuke jakingo zer erantzun. Neuk ba al daki zertako? Baina naiz. Eta hau da errealdade bakarra. Naturelezak hala egin ninduan, eta natureleza horrek ematen dit izanaren errazoa. Nere gorputzaren zenbait gauza ere ez dakit zergaitik diran horrela, eta ezin nezake erantzun. Nere barnetikako taupadaz egiten ditudan gauza asko ere ez dakizkit zihurki zergaitik eta zertarako; beraz, ezin erantzun.

Galdera hoiak ez dira hain xinpleak. Sakonak iduritzen zaizkit. Neronen buruari ere maiz galdetu bait diot zertarako sortu ote nintzen euskaldun. Zergaitik gizon eta zergaitik edo zer ekarri ninduen mundu honetara, galdetzen dudak bezala. Azken hauek gizonak bere buruz erantzun ezindakoak badira ere, lehenbizikoa ere nekeza zaio bere buruz erabakitzea. Aukeraterik izan banu, behar bada, Eskandinabia aldean edo sortzea nahiagoko nuen, hemen Espainia eta Frantsiaren arteko muga aspergarri honetan baino. Gure herria zatitzen bait du Europarekin batean. Baina neronen esku ez zegoanez eta hemen sortu nintzanez, bertakoa naiz, eta bertakoa naizenez haragiz eta ispirituz, beharrezkoa zait bertan bizi beharra, beharrezkoa sorterrria-

ren interesekin arduratzea, ni bere haragi zati bat naizelako. Nere osasuna, nere herkideekin batean, bere osasuna da, herriaren osasuna.

Nere sorterrria ere munduaren haragi zati bat besterik ez dala? Bai. Ez dut ukatzen. Baina bakoitzak gauden lekutik osatu behar dugu mundua. Beranduko euskaltzalea naiz, eta aintzinako munduzalea. Europaren osagarriak herri txikien bultzadatik ez badatoz, nagusiak elkar menderatzen bukatuko dute. Zergaitik hori? Zergaitik historia guzian handiak elkar hartze hori nekezagoa? Horren erru asko ez ote txikiak ez errespetatzean?

Europa zaharrak ez du soluziorik herri txikiak errespetatzeke. Hala ere euskaldun zertako? Eta, zertako erdaldun? Zertako espainol, zertako frantsez, edo zertako ingeles? Gizonaren neurritik begiratuta ere guzia bait da *Testamentu Zaharrak* dion bezala: «Vanitas vanitatum et omnia vanitas» (Ecles. 1, 2).

Horrela asten du Unamuno berak ere *¡Plenitud de plenitudes y todo plenitud!* saioa. Gainera, Unamunok, lan berean agertzen du hau: «Cada pueblo ha ido asentando en su lenguaje su concepción abstracta del mundo y de la vida, y en la extensión y comprensión que da a cada vocablo va implícita su filosofía» (*Obras completas*, t. III, p. 765). Eta berak euskerari gunik arkitu ez bazion ere, ez zan izan euskeraren errua, bere euskerarekiko ez-jakintasunagaitik baizik. Eta, hala ere, beren buruak euskaltzaletzat eta abertzaletzat dituzten askok baino euskera gehiago ekian. Zeren kontuan izan behar bait dugu, hauetariko asko eta asko, sentimentala-

lismu hutsak eraman dituela herria maitatzera eta maitasun hau gora-behera beren herriarekiko kulturari buruz subdesarrollatuak daudela.

Neuk ere ez nion arkitu behar bezalako gunik gaztelari. Gaztelera ondo menderatu nahirik eman nituen alperrikako orduak irakatsi zidaten nere arbaso hizkuntza nuela gun hori, nere arimako hori. Eta konturatu bezin azkar jo nuen euskerara. Eta nere gurasoen hizkuntzak eman zidan nere barnean lo egoan mintzairaren jenioa, geroztik nere egimenetan hain beharrezkoa izan dudana. Geroztik, erderak, mundu zabalean besteei begira dauden lehiu irikiak bezala ditut, har-eman askotarako baliatzen naizenak, baina nere pentsamenaren aldetik ideiak sortzeko ez didate balio euskerak baizik. Maiz, beste-egandik jasotzen ditudan aleak, nere buru-errotan ixo, eho, eta bertako baiian eralgi ondorean itzultzen ditut euskeraren bidez. Batzuetan ez dakit hizkuntza bera dan nere buru-barneko trokarterako bide izkutuak ezagutzen dituen, ala nere burua dudana hizkuntzari itsatsia dagoena. Dena dela, beharrezkoa dut alkartasun hori nere pentsameneri forma emango badiet. Eta nunnahiko gizonak maitatzen ditudalarik ere, anaiagoak arkitzen ditut hizkuntza berdinarekin baliatzen direnak, ulerterrezagoak zaizkidalako, eta berekin betetzen dudana da nere lehendabiziko mundua, edo munduaren edo munduko inguru bat.

Kontuan izan beharrezkoa dut, nere begiak euskeraz ikasi zutela parre eta negar egiten. Beraz, zergaitik ez euskaldun, bestetariko gunetik gutxiago ba dut? Unamunok zionez: «La lengua, he de repetirlo una vez

más, es la sangre del espíritu» (*Obras completas*, t. III, p. 1.081). Bion arteko diferentzia bakarra da, berak gazteleran arkitu zuela guna eta nik euskeran. Eta, orain, ongi zetorkit bere hitzekin baliatzea. Alde bate-tik, berak gaztelerarentzat arkitu zituen errazoi ber-be-rak edo antzerakoak ditut nik euskerarentzat; eta bes-tetik, hainbeste hitz egin da aspaldiko urtetan kultura-ren eta aurrerapenaren izenean gure hizkuntza baztertu ditzagun, Unamunok eskatzen zuen bezala. Iritziak ere bere errotik atera ditugu. Beraz, zergaitik ez baliatu Unamuno beraren armekin. Ia beingoan isiltzen ditugun Unamuno aintzat harturik ari diren aho-zabalok. Una-munoren helburua, beretzat izan behar zena, bestee-ri ere eman nahi diote. Eta, sarri, bere egia ezta gure egia. Horregaitik, ikus-molde batzuetatik begiraturik bere errazoiak izanarren neronek ez ditut gogoko. Eta ez dut inoiz txarrera hartu *La cuestión del vascuence-n* zion guztia, «euskaldun zertako?» esanez egin dan galdera-rik sakonena bada ere. Eta bere denbora hartan egin zan galderarik sakonena izanarren, inundik ez zuen izan erantzun zentzundunik.

Salbatore Mitxelena berak ere, *Unamuno ta aben-dats-en*, nere ustean, ez zuen behar bezala aztertu aspaldiko auzi hau. Neri aski izan zitzaidan berak erde-raganako hartu zituan errazoiak eurak euskerarentzako hartzea. Nere sentipen eta nere gogoaren izakera eus-keran arkitu nuelako.

Adiskide Martin Ugalde-ren *Unamuno y el vas-cuence*, beste gauza bat da. Hemen aztertzen da behar bezala Unamunoren euskerarentzako kontra-indarra.

Lan sakona, arduratsua. Behar bada ez da baliatzen gehiegirik Unamuno berak erderaren alde zituen errazoiakin, errazoi hauek euskerarentzat hartuaz, nik egin nuen bezala. 1967-ko otsailaren 26-an «Zeruko Argia»-n argitaratu nuen idazkia egin nuenean oraindik ez nuen ezagutzen Ugaldereen liburua, Buenos Aires-en 1966-ko urtearen azkenaldira argitaratua. Liburu jakingarri honen, ez dago zer esanik, ondo aztertzen ditu Unamunoren pentsaerak eta sentierak. Behar bada zenbait puntu ez ditu hain argi jartzen. Unamuno Euskal Herrian jaio eta hazi zan tokia eta historiaren une haren giroa ez ziren egokienak liberal hura bideratzeko. Bere ezkertiar jokeragaitik eskubitik etorrenik ontzat har ezin zuenez, gutxiago har zezakean intelektualak herriagandik hain hurruti zerabiten euskera. Hizkuntza adierazteko izanik, adierazi ezin zitekeana; azaleko itxurazko prestijioagaitik erdera kutsuko hitz guziak baztertzen zirana. Euskera ulerkaitz harek euskaldun jatorrak ere uxatzen zituan eta ezta mira ereiztekoa Unamunok bide hartatik jarraitzerik nahi ez izatea. Neolojismoentzat berak jarri zuan «terminacho» hitza, eta bere lanetan hainbeste aldiz mintzatzen dalarik ganoragabeko hitzen garbiketagaitik, huntaz ezer gutxi dio Ugaldek. Mingarria bazaigu ere, zenbait gauzatan bere errazoiak zituan Unamunok. Hori bai, bere egitekoa izan behar zan besteengandik aldendurik berari zegokion bidea irikitzea, baina hortarako hizkuntzaren giarra behar zuan eta beregan arkitu ezin.

Bestalde, Unamunok ez zuan arkitu ezer merezigarririk euskal literaturan. Dana ezagutu ote zuan? Nik

ezetz uste. Berak ekian euskera ez zan gauza euskal literaturako lan asko ta asko, gehienak eta hoberenak noski, ongi konprenitu ahal izateko. Eta herri literaturarenik ez zekien ezer. Geroago gehiago baliatzen dan herri literatura ez zuen inundik ikusi.

Baina Unamunoren euskerarekiko eta euskal-kulturarekiko huts hoiek ez dira nere errazoi bakarrak, ez eta ere hizkuntza soilik defenditzea. Gizontasunak, justizia egarria ere bere barne-muinean darama. Gurutzan hil zena dugu adibide. Eta, munduko gizon bakoitzari errespetoa eta justutasuna zor zaion bezala, era berean, herri bakoitzari ere berea zor zaio. Euskeran hezi eta hazi giñanok zergaitik ez besteak haina eskubide?

Gure herri ahulak ez duela holakorik sentitzen? Gehienak ez, noski. Egia. Bainan, lo daudelako. Eskeini zaigun historia ezaguturik eta bizitzan zehar ikusi duguna ikusi, eta inoiz zigortuak izan bagera batez ere, norberekilan jardun besterik ez dago errazoiaren eta justiziaren funtsa arkitzeko, eta orduan iratzartzen gera. Bizitzaren eskola latzak gainerako beste eskolak baino gehiago ez ote digute irakasten? Kontu hoietan bai beintzat.

Uste dut oraindik ez dakigula zihurtasunez mundu honetan zertako gauden, baina bai badakigu justizia hurri dagoela, eta borondaterik hoberenakin joan behar dugu mundu hobeago baten billa, gizonak bere sortzetan izan duen jokerari jarraiki. Euskaldunak geranez, alegindu gaitezen euskaldun iraunez. Nere aldetik, beintzat, ez da asko eskatzen dudana: gizon guzientzat eskubide berdina, eta herri guzientzat ere hori bedori.

Espriu-ren hitzekin esango nuke:

*Diversos són els homes i diverses les parles,
i han convingut molts noms a un sol amor.*

Nun dago Unamuno eta nun bere iritziekin baliatzen direnak? Haueri ondo datorkioe Ugaldereen lana. Unamuno ezertan gelditu bada kaxkar, hor izan da hain zuzen ere. Linguistika berriak beste bide batzuek daramazkite. Eta estrukturalismu jakintzak hizkuntzeri itsatsirik bestelako errazoirik ematen digute. Eta, hizkuntza sobra dagozela, mentalidade atzeratu batzuek bakarrik esan ditekera gauza da.

Hainbeste hizkuntza alperrikoak badira, mundu zabalari begira, eta batez ere etorkizunari begira, zertarako dugu frantseza, eta zertarako gaztelera bera? Zergaitik ez goaz zuzenki ingelesa ikastera? *The english-speaking folk*, izen honekin Unamuno berak ere badu lan jakingarri bat, oraindik euskera menperatu nahirik eta baztertu nahirik dabilzateneri hain atsegina ez zaiena. Lan horretan jartzen dituen iritziak ez bait dakarte frantsezarentzat eta gaztelarentzat onik, eta, jakina, hori ez komeni.

Baina arraia ahotik hartzen danez, betor Unamunoren irakaspenetarikoa bat: «Adueñarnos de nuestra habla es cobrar tierra, independencia y libertad espirituales» (*Obras completas*, t. VI, p. 957). Hitzok birlago ezin dira etorri gure alde. Beraz, euskaldunok iratzar lo-zorrotik.

Unamunok jartzen dituan errazoi hauek eta ondorenean jarriko ditudanak ikusirik, errazoia eman beharrean gera Humboldt-i, esaten zuelarik: hizkuntza bakoitzak bere inguruan markatzen zuela zirkulu liluragarri bat mintzatzen den herria bere gisa inguratzen duena.

II

HIZKUNTZA ETA ETNIA

Etnia hitzak duen zabaltasuna ez da erreza hitz gutxitan eta uste gutxitan mugatzea. Hortaz, oraindik saio asko egin beharra dago, batez ere molde oien barnean gure egoerari buruz. Esana dut hizkuntza ez dala etnia guztia, eta, etnietatik aparte, gizonaren bizitzarentzat beste gauza asko dirala hizkuntza bat (edozein hizkuntza, naiz bata edo naiz bestea) baino beharrezkoagoak.

Hizkuntzaren inguruan ari naizenez, ez naiz sartuko bestetan, hizkuntzekin zer ikusirik ez duenetan beintzat. Gaur, hizkuntza batek etnia aldetik duen baliorez jardungo naiz; hain zuzen ere gure hizkuntzak.

1966-an, agorraren 4-an, Donostiako XXIII-garren Euskal Jaiak irikitzean, Juan Bautista Olaetxeak eman zuen hitzaldi bat, jaien sarrerako hitzaldia, *El concepto del vasco y de lo vasco* izenburuz.

Ez dut dudarik ipintzen hitzaldi horretan gauza asko esango zirela gure herriaren eta bere kulturaren alde. Era guztietako saiakerak ongi datorzkigu. Baina haueri kritikak egitea ere bidezkoa dugu. Eta, une honetan, hitzaldiaren alde bati bakarrik egingo diogu, guri garrantzizkoena (edo gutxienez neri, hizkuntzaren inguruan ari naizelako) zaigunari bijoaz nere aburuok. Han esan zan —eta honen agiri zihurak ditugu—, euskera utzita ere ohiturak berdin jarraitzen dutela; zeren euskera galdu duten herriak ez omen dute euskotar girorik galdu. Gero, ez dakit nik nola, hizkuntza eta etnia korapilatu zituen, euskera gabe ere etniak berdintsu jarraituko zuela esanaz.

Alegia, kontu honetaz, ohar batzuek argi eta garbi jarri nahi nituzke. Etniak, bere zabaltasun guzian, bai Euskal Herrian (eta batez ere Euskal Herrian) eta bai mundu guzian, hizkuntza du bere berezitasunaren oin-harririk nagusia. Ezer ez dijoakio, etniari, hizkuntza baino lotuago.

Errazoi honen agiritzat aski dugu begirada bat azken ehun urte hauetan, etnia estudioak hainbeste gehitu eta indartu diranetik gaur arte, Euskal Herriko etnologia estudiatzen ari izan diran arrotz jakitunetarik, ehuneko larogehi inguruk hizkuntzari eman diotela boliorik gehien eta hortaz egin dituzte beren estudiorik gehienak. Beraz, horrek argi jartzen digu etnologiaren baliorik erdi, gutxienez, hizkuntzan dagoela. Gure herriari dagokionez beintzat. Eta hau egiztatzeko, ikusi besterik ez dago hontaz egin diran lanik nagusienak, azken urteetan «RIEV» eta «Eusko-Folklore»-ren bil-

duak dira ikusi nahi duenarentzat. Lan hoiek ezagutzen dituenak daki, gure kultura zahar guzia (gure etnia guzia) hurri gelditzen dela hizkuntza kenduaz gero.

Uste dut, puntu hau argi dagoela.

Bestalde, euskera galduta ere Euskal Herriak berdin jarraitze aldetik, teoria honi jarraiki, antzerakoak izan bear ziren, euskalgoari buruz, Araba eta Bizkaiko Enkartazioak, Erriolja, Burgos parte bat, Huesca-ko Pirineo aldea, Biarno (Béarn) eta Kataluniako Ribagorzana goia eta Valle de Aran, zeren hauetan ere lehenago euskeraz mintzatzen bai ziren, bertako toki-izenak, deitura askok eta beste zenbait agirik jartzen duanez. Baina ezta horrela. Haiek ez dute euskotartasunik sentitzen oraingo Euskal Herriko geografia politikoaren barnean ez daudelako. Ohituraz, elkarregandik dituzten aldiak, bizkaitar euskaldunetatik nafar euskaldunetara daudenak baino handiagoak ez bai dira Burgos-tik Huesca-ra eta Huesca-tik Béarn-era. Beraz, zerek ematen diote haieri beren ohituretan hain berdintasun handia? Beraz, zer ohitura?

Hizkuntzarekiko exenplua besterik litzake. Adibidez: jarri elkarrekin gipuzkoar euskaldun bat eta lapurtar euskalduna (eta ez da beharrezkoa izango bertsolarien aurrean jartzea); bestaldetik, euskeraz ez dakien lapurtar bat eta euskeraz ez dakien gipuzkoarra, bietarik batek herbesteko mintzaira jakinarren (naiz frantseza edo naiz gaztelera), ia beren artean zer nolako anaitasunak arkitzen dituzten.

Naiz Idahon edo naiz Argentinan, hizkuntzak gehiago urbiltzen ditu gizonak, beste ezerk baino.

Ohitura eta izakera alde hortatik egiztatzeko, ikusi besterik ez dago euskal kulturari buruz, euskera bide dalarik, betidanik elkarren artean izan diran har-emanak mugaren bi aldietatik. Eta, lasai esan genezake euskeraz ez dakitenen artean ez dala horrelako har-emanik nabaitzen mugaren bi aldietatik. Etnologu eta euskaltzale, maiz biltzen gera mugazandik edo hemendik. Eta gainerakoak, ez dute beren bilkurarik. Jakina, Miarritzeko kasinu kosmopolita horretara joaten direnak edo izan ezik.

Beraz, nere ustea bestelakoa da. Gizonen artean, euskera-erdera muga handiagoa da, gure herri barnean bertan, Bidasoako muga bera baino. Muga hori, hona datozten etnologu guziak oso ondo bereizten dute.

Aitortzen dut, gaur, gure herrian bi komunitate daudela: euskalduna eta erdalduna. Gizalege aldetik biak dute bizitzeko eskubide berdina. Gizon bakoitzaren esku dago (obeto esan da, egon behar litzake) bata uztea eta bestea hartzea, bata zein bestea hautatzea; edo hobeago dan biek in baliatua bizitzea. Baina, eskubide ofizialak berdinak ez badituzte ere, etnia aldetik jatorrizkoak du balio nagusiagoa. Beste hizkuntza, beste etnia batekoa baita. Oraingo kultura berrien aldetik erderak du bide gehiago, eta oraingoz beharrezkoa zai-gula esango nuke. Baina, orainagoko kultura berriagoak adierazten digu bilinguismoa hobe dela, bata hiltzen uztea baino. Eta guk ezin dezakegu jokatu Europako herririk aurreratuenak artu duten bideen kon-

tra. Eta hori hola delarik, zer da jaun horren esan nahia? Ez-jakintasuna ala jakinaieztasuna?

Herri bezala, etnia aldetik, arestian esan dudan legez, euskera ezta guzia; baina euskaldunok, euskera gabe ez gera ezer. Hizkuntza galduta ere herri bat izaten jarraituko genuke, bai noski; oraingo Huesca, Biarno, Erriolja edo Burgos bezalatsu.

Aditzera eman dudan bezala, hitzaldi horretan esan zituan gainerako gauzetan ez naiz sartzen. Gauzarik gehienetan bere errazoiak izango zituan eta hori ez diot ukatzen. Rh-, neurtu ditzake euskera gabe ere, baina ez ordea deitura. Eta, Rh- ere antzera xamar arkitzen da aipatu ditudan herri hoietan, batez ere Biarnon eta Huescan, gutxienez hemen haina. Hala ere, antropologia aldetik, horrek ez du nahikoa indar arraza aparteko bezala jartzeko Paris-ko Musée de l'Homme-koak 1963-an egin zuten estudioan agertzen denez. Ez bait da nahikoa bereizkuntza. Hauentzat ere, alegia, euskera izan da gure herrian arkitu zuten bereizkuntzarik handiena, berek antropologia estudiatzen dutelarik.

Gainera, ez dut uste euskaldun izateak arrotu behar gaituenik, berak hori horrela esan bazuan ere. Euskera gabe ere Euskal Herriko semeok arrotu behar gerala? Herri baten izatea ez da arrokeria gora-behera. Herri guziak dituzte beren gauzon bereziak, era batera edo bestera. Nere ustean, euskaldunok gure izakeraz ez genuke izan behar zertan arrotu askorik.

Unibersalidaderako ere ez dut uste euskerak txikiagoak egiten gaituenik, baizik Europarago sentitu behar ginake gogoz kontra jarri zaigun sasi-muga bat

gora-behera. Ez da alperrik, euskera, Europan hizkuntzarik zaharrenetakoa.

Guretzat, eta ulertu nahi duenarentzat, berriz ere esango dut, euskaldun izatea bi hitzen barnean dagoa: izan edo ez izan.

* * *

Aipatutako hitzaldi horrek «Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País» dela aldizkarian ikusi zuen argia, urte berean, XXII-gn. tomoren 486/492 orrialdeetan. Nere artikulua ondorean izan zituen ezta-baidak gora-behera lehenean nago. Bere hitzaldia ez dakit zer asmurekin egin izango den, nik nahasmendurik aski arkitzen dut, eta batez ere lehen salatutako bi puntu haietan: a) euskera utzita ere ohiturak berdín jarraitzen dutela, euskera galdu duten herrietan agiri denez; b) euskera gabe ere, euskal etniak berdintsu jarraitzen duela. Nik nion, hizkuntza aldatzean, bai etniak eta bai ohiturak, asko aldatzen zirela. Eta, jakina, zerbait aldatze horrek gauza beren konzeptuak eurak ere aldatzen ditu, eta alde hortatik ez da agertzen oinharri sanorik. Gauza hauek zehaztasunez aztertzeke ez dago estrukturalismoaren goiko mailetara igo beharrik.

Bigarren erantzunean, ordea, nere ohar bietarik bati bakarrik oratzen zion, ohituren errazoieneri bakarrik. Konturatzeke, gaur Euskal Herria dena, bilinguismora heldua, bere jatorrizko (bere etniazko) izakerak galduaz, bere nortasuna makustuaz. Eta galdua

berriz irabaztean izango litzake bere egizko nortasuna eta bere izakeraren usteak indartzea eta aberastea, eta ez galzorian lerratzean.

Aitortzen nuen, gaur, gure herrian, bi komunitate daudela, hizkuntzak ebatzen dituanak (dana ez bada ere, gehienbat hizkuntzak): jatorrizko komunitatea eta herbestetik sartua edo hartua (era bietarik noski). Historia aurretik datorkiguna (gu besteengandik berezi gaituan bakarra) eta, bestea, historia oroitzen delarik hartua. Zer litzake gure nortasunaren ustea lehenengorik gabe?

Guziok dakigu gaur erdera dala nagusi gure geografia politikoan, herbesteko etnien bere jatorria duen hizkuntza. «Vasco» hitza bera, erderatikakoa denez, «vasco» konzeptuak bi alde izan ditezke, baldin hiru ez baditu. Donostian eta Bilbon, «vasco», Euskal Herriko semea da; euskaldunarentzat, besteak, erdaldunak edo erderarekin baliatzen direnak, berari ematen dioten izena; eta euskera galduarren, lehendikako euskerak txerto zioten usteaz (euskeratikako konzeptua noski), «vasco», euskera dakiena da eta ez beste. Adibidez, Baionan, Maulen, Miarritzen, Iruñean, Erriberan, Nafarroa erdi aldean, Arabako zenbait tokitan eta bai Enkartzazioetan. Erronkariarrak, «nuestros abuelos eran vascos» esango dizute. Alsasuan, los vascos, beren gurasoak eta Urdiaingoak dire, eta mutikoen artean ere, «vasco» deitzen diote inguruko herrietarik hara bizitzera joan diranen seneeri. Dirala hiru urte euskal etnografiari buruzko tesis bat egiten lagundu nion Baionako seme batek ere, «mis padres son vascos»

esaten zidan. Zergaitik zure gurasoak bai eta zu ez?, galdetu nionean, hau esan zidan: «Porque ellos hablan vascuence y yo, no». Urte asko ez dira Miarritzeko neska batek berdiña esan zidala. Erronkarin hainbeste aldiz ibiltzen naizelarik, uste horrek neregan indar handia hartu du. Eta, euskeraren zentzutikako ustea dala, ez dago dudarik. Beraz, uste ortaz jardutzeko arinergia iduritzen zait zenbait lekutan erderatik hartu zuen zentzuarekin jokatzea. Bestela, galdetuko nuke: Jatorrena zein da? Etnografiaren aldetik ez dago zalantzarik. Hain zuzen ere, etnografia estudioak berak eskatzen du herri bat bere jatorrizko konzeptu hoietan jusgatzea.

Jartzen ditudan adibide hoiek oraindik bizirik daude, toki bakoitzean jusgatu nahi duenarentzat. Zer adigarriago exenplu biziak baino? Hau da, China-ko euskalduna exenplutzat jartzeko, lehendabiziko euskaldun chino bat arkitu behar luke exenplu hori proposatzen duenak. Bestela hutsean jardutzea da.

Baina, exenplu hoiek ere utzi ditzagun alde batera, eta hartu dezagun zenbait tokitan zabaldua den (Bilbotik eta Donostiatik berandu zabaldua noski) beste uste hori: Euskal Herriko semea, beste gabe, «vasco» dala euskerarik jakin gabe ere. Hala ere, «vasco» hitza bera bera «vascuence»-tik datorrenez, agiri-agirian dago euskal hizkuntza zuela bere oinharri. Deiturak ere hizkuntza duten bezala. Beraz, euskerarik izan ez balitz, zerek bereziko zuen Euskal Herria? Eta, Euskal Herriak euskera galduta ere ohiturak berdin jarraituko zutela? Baina, garbi ez al dago ba zenbaitentzat euskera galtzeaz bakarrik konzeptua ere aldatua dala?

Orain, euskera bizi dalarik, bereizkuntza erreza da. Euskera galtzen denean hurri izango da. Beraz, Euskal Herriak bere nortasunik berezienari eutsi behar badio, bere izatearen indar baliozkoenak gordeko baditu, naiz gaur duen ahulerian, hizkuntza gorde beharko du.

Gainera, euskalduna, Euskal Herriaren barnean, erdalduna baino gutxiago izanik ere, gaur oraindik bizi dan komunidadetako bat da. Errazioan ez dago handi eta txikiaren gora-beheran, baizik komunidadetako batek duen bizitzaren iraun nahiaren gizalegean. Euskal Herri orokorra, gaur dana izatera, bere buruaren jabe ez izateak ekarri du; ofizialki laguntzarik ez izateak, eskolatan euskeraz mintzatzen ziren haurrak elestunez zigortzeak, urteetan aldizkari baten jabe izaten ez uzteak, irratia debekatzeak, telebistan sarrerarik ez emateak, euskaldun Sancho tripazai askok anaiak saltzean, abar eta abar.

Horrek ez du esan nahi beste askok, beren borondatez, jakinaren gainean utzi zutela euskera erderaren trukez. Horretan, gizon bakoitzak libre du derizkion egitea. Behar bada, askori gertatu zaie bezala, semeak etorriko zaizkie kontuak eskatzen. Esanez, gurasoak ez zuela eskubiderik lehenagoko arbasoegandiko hizkuntzaren erentzia galerazteko. Hauek ere gertatzen ari dira.

Amor eman dezagun Euskal Herrian diran bi komunidadetako errespeturako. Eta, ez trabarik jarri uste irristakorrekin.

Sakon begiratu eta aztertuko badugu, arkituko dugu, gure iritzi hoiek ez direla gureak bakarrik, baizik,

bai ONU, bai Unesco eta bai Batikano 2-gn. Batzar Nagusiana, beren ispirituz eta beren ekintzaz, komunitate guzien errespeturako eta mundu eta gizonen bakerako, gure gogora datozela; herri eta komunitate guzien bizitzaren alde eskatzen duelarik, zertan hasi bestelako nahaste hoiekin? Nahasteetatik indarrak irabazten duelako?

Gizon batek, era honetako lan bat gertatu behar duanean, bearrezkoa du (edo izan behar luke), garbi jokatzeko, munduko elkarte nagusien iritzia jaso beharra, beren agiriak ezagutu beharra. Eta gure herri barruan erderak duan indarra eta ondasuna aintzat izan da ere aski errazoi du euskerak biziaz irauntzeko. Eta, alde honetatik bada non lan egin, bestelako uste badaezpadakoak alde batera utzita ere.

Euskalerrian, euskeraz ez dakitenak, eta maiz herbestetik etorriak, asko be asko dira beren semeei euskeraz erakutsi nahirik, baina ez da inundiko laguntza ofizialik gurari hori bete ahal izateko. Eta hizkuntza, bai hemen eta bai Kontxintxinan, laguntza ofizialik gabe, edozeinek dakian bezala, ez dutela bizitzerik.

Zer egin da eta zer egin da euskeraren salbaziorako? Bada hor lanik aski, eta gutxienik egin ditzakeena da: trabarik eta nahasterik ipini ez! Batez ere erdi zuriketaz. Hortakoz, kontra dagoan gizonak, gizonkiago jokatzeko du kontra dagoela esanez.

* * *

«Herria» astekariaren 852-garrenean ekin zion Hernandorenak gai honen saiakerekin, eta «Herria»-

ren irakurleen argi-biderako jarri nituen zenbait ohar. Euskeraren ingururako jakingarriak diranez, hemen emanen dut beren laburpen bat.

Hernandorena adiskideak hasieratik oker handiz oinharritu zuen gure artean izan zen eztabaida hura. Ondorengo artikuluetan ere zuzendu ezinezko okerra. Paperik aski gastatu zuen «Herria»-k bere artikuluekin, baina bi puntu haieri, gaur da eguna, oraindik erantzunik eman ez diena. Nere arrapostua egin nioen bi puntuok ziren:

a) euskera utzita ere ohiturak berdin jarraitzen dutela, euskera galdu duten herrietan agiri denez;

b) euskera gabe ere, euskal etniak berdintsu jarraitzen duela.

Hauek ziren batez ere Olaetxea jaunarekin bat ez nentorren bi puntuak. Gainerakoan, gauza askorekin konforme nengoan, eta jartzen zituen bestelako zenbait nahasmenduren kontra ere ez nuen ezer erraitekorik, naiz ete konforme ez egon.

Hori adieraziz hasi behar zuen Hernandorena adiskideak, bertzelako nahasmendurik gabe. Zeren bi puntu hoién aurka atera nintzelako, eta ez bertzerena. Nioiz, bai bera eta bai ni, exenpluren batzuetan haritik zerbait atereak ibili baginen ere hori zen gaiaren kakoa.

Horregaitik egin nion galdea: «Zuk ontzat hartzen dituzu puntu hoiék?» Gure herriaren hizkuntza jatorra jokutzen da iritzi hoietan. Beraz, Euskal Herria, euskalduna ez bada, erdelduna izanen da. Hala, ez ote?

Bi puntu hoietan hesitu behar zituen bere ihardespenak.

Bizkitartean, lehenean natzaizu: Ohiturak eta izakera ez direla aldatzen? Ene iritzian, eskuara gabeko Eskual Herriak herrotik galtzen du bere jatorrizko ispiritua. Zer lirake gure kanta-zahar, ahozko literatura zahar eta berri, zer bertsularitza bizia eta hizkuntzak bere muinetan duen pentsaera berezia? Gogoz-kontra jarritako sasi-mugaren bi aldeetako eskualdungoaren anaitasuna, ezinezkoa litzaiguke eskuara gabe. Zerek egiten gaitu euskaldun? Zerek anai? Xiberoatik Bizkairaino ibilia naiz herriz-herri, nolako deitura dutan eta nun sortua nintzen erraiteko premia gabe; eskuara izan bai dut, bide, populuari anaiki agertzeko. Hori bait da biltzen gaituen gauzarik baliosena.

Zer litzake frantsez mintzaira gabeko Frantsia? Zer ingelez mintzaira gabeko Ingalaterra? Niork ezin du ukatu, Euskal Herriak ere, herri bezala, bere baliorik erdi haina mintzairan duela.

Gizonarentzat berdintsu da, bizi izateko, hizkuntza bataren edo bertzearen jabe izatea; baina eskualdunarentzat, eskuara, beharrezkoa da eskualdun izateko.

Ene ihardetsiak gogorregiak izan daitezke, baina eskuararen egoera latz hau ikusirik, gure berondate eta ahal-bideen kontra nabaiturik ezta erraza bigun jokatzea. Ez gaude txantxetan ibilteko. Urrikalduko nintzake, baldin gure mintzairarentzat urrikalmendurik balitz.

Ahoan bilorik gabea naiz. Bizi giran denbora ilun hauek horrela egin naute. «Idazlari-polemista» naize-

la? Hala balitz ere, ez da ongi zozoak beleari «ipur-beltz» deituztea. Eta behar bada kritikak hurri izan direlako daude gure artean hainbertze irizpide ahul. Txarako sasiak garbitzen ditugunean, basoko bazterrak argiako ikusiko ditugu.

Beraz, bijoaz gauzak bere bidera. Ezer erratekorik bada, bi puntu hoiien barnean finka bedi arrapostularia. Hoiiek izan behar zituen oinharri; zeren oinharri gabe ez bait da egintza funtsezkorik.

Deiturak bere balioa dute euskotar izatean, ez diot ukorik eginen. Eskual Herrian sortu eta bizitzeak ere bai, hori ere ez dut ukatzen. Baina deiturak eskuarari zor dio bere izatea. Eskualdun geranok, eskualdun izatea eskuarari zor diogun bezala. Eskualdun, ez bai du egiten Eskual Herrian sortzeak, baizik eskuaraz mintzatzeak. Arestian erran dudan bezala, eskuara izan dut Eskual Herria mutur batetik bertzera ibilteko pasporterik hoberena.

Izan nahiaren kontzientzia aski dela eskualduna edo naiz euskotarra izateko? Benetako kontzientzia duenak hobe luke eskuara indar-berritzen lana egin, eta ez galbideara eramateko lana. Bertzela gezurrezko kontzientzia bait da.

Oraindik zenbat lan egin beharra dugun ardi laruz jantzitako otsoen kontra.

* * *

Hasieran esan dudanez, etnia hitzak konzeptu aski zabala du. Ez da hizkuntza bakarrik, baldin hizkuntzak etniarekin lotura handia badu ere.

Etniak, herri baten jatorrizko kulturaren forma guziak biltzen ditu, eta hala ere aldakorra izan daiteke, zeren munduko herri guziak berez bai dute beren bidean aurrerat aldakorrak izatea, baita ere inguruko herriekin har-emanean besteenetik gauza asko hartzea. Baina besteenetik hartua, neurri batetik gora, izan dezake jatorrizko etniaren indarrik berezienak ahultzeko, gutxiteko, eta baitere hiltzeko. Horregaitik, mundua, bere naturaleza orokorra denez gero, naturalezatikako zati hoiek galtzea munduak bere izatearen aragitik galtzea da. Errazoi horregaitik munduko elkarte nagusiak eman dituzte beren agiri eta kontxeiluak herrien etniazko jatortasunak gordetzeko, eta ez gutxitan babestu eta lagundu. Ondorengo kapituluan emango ditut munduko elkarte nagusi hoiien agirien berriak, eta orain nijoan gure etniaren iturburuetaruntz.

Bizi geran lur honetan, lehen kulturaren arrastoak harriaroan galtzen dira. Hau da, Paleolitikoan. Isturitz, Santimamiñe, Etxeberriko-Karbia, Bolin-koba, Alhasi Frantsiako Montignac aldetik eta Espainiako Asturiasera arte. Lascauz, Mas d'Azil, Altamira eta abar. Harpe hoiako dibuju eta tresnak azaltzen digunez, alkarren kideko kultura zan. Joan zan mendearen azkenaldiko arkeologoak hasi ziren kultura horri, Frankantabriako kultura deitzen. Eta lurralde hoiien erdi-erdian arkitzen da gaurko Euskal Herria. Askok esan dute euskera ordutikakoa ez ote dugun, baina hau hurrutiegi joatea da. Orduko gizonak, esate batera, eiza hutsetik bizi ziranez, hastapenetako kultura labur bat zuten eta etzuten behar hizkuntza hain landua.

Harriaro ondorenean, Neolitikoan, eizarez gain bazituzten beste bizi molde batzuek ere, abereak hezitu zituztenez, ondasunak, ugariagoak ziren, eta gainera mendi-goitan zituztelarik udarako larradiak, negurako itsasaldera edo behe zelaietako larradietara joaten ziren, abereentzako janaria elurteak ahal gutxien estaltzen zuten lurretara. Gaur oraindik ere bizitza aldaketa hori egiten dute, Beraz, Euskal Herriak duen bizierarik zaharrena dugu artzaingoa.

Harriaro ondorengo bizitza horretan hizkuntzarekin gehiago baliatu beharra zuen, beren bizi lanak ugariago eta trashumanzia horrek har-eman gehiago ekarri ziolako orduko gizonari. Geroago, laborantza eta burdinlangintzat etorri ziren Erromatarren garaian, eta, hauek, berekin zekarkiten hizkuntzaren behar handiagoa, eta behar hoiek izan ziren hizkuntzaren indartzaille eta handitzaile. Jakina, berakin zekarten, gizonaren aurrerapen hoiek elkar kutsatzea. Hauek horrela direla, Barandiaranek eta Mitxelena esan izan duten bezala, euskerarekin, hizkuntza bezala (eta ez gaur bezalakoa) ezin geneza joan lau edo bost milla urte baino aruntzago. Izango ditu gure hizkuntzak aurretiko hitzen bat edo beste, baditeke, baina geroztikoak eman zion bere guna, gaur duen guna. Zeren bi edo hiru millatik onuntza gorpuztu dela bere morfologian, argi dago. Orduangoak oinharriak dituela, gure euskerak geroztik ere aldakuntzak eta gehigarriak izan ditu latin hizkurtzen ondoan bizitzearen influentziaz. Eta, kutsapen hoiek ez dago dudarik ongarriak izan direla, zeren bestela etzuen gaur arte irauntzerik. Munduak bere ebo-

luzioan zekarten era berrietara jartzen kutsapen hoiøk lagundu bait zion euskerari.

Hala ere, ez dago dudarik, gaur, Europako hizkuntzarik berezietakoa dala euskera. Bere estrukturetan formarik zaharretakoak gordetzen bai ditu. Eta etnologu antropologurik gehienentzat hor dago herri baten bereizkuntzarik adigarriena, hizkuntza aparteko baten jabe izatean. Eta, beren begiak Euskal Herrian maiz jarri badituzte, hizkuntzaren deiak eraginik izan da batez ere. XV-garren mendetik XVII-garreneira, hizkuntzak ekarri zituan gure herrira orduko jakitunak. Bide horrek erabarri zuen ondorengoa, eta XVIII-garrenaren azkenaldira arte inor ez zan arduratuko bestelako bereizkuntzekin, eta orduan hasi ziren estudioak kanta-zaharreri, ohitureri eta bizitzaren erak estudiatzen. XIX-garrena etorri zen arraza bezala estudiatzea, hizkuntzan eta ohituretan hainbeste gauza berezi zala ikusi zanean. Guztiok zetozten etniazko nortasun handi baten giroan lotzera.

Europa erdi aldetik honuntza, Harriaroaren lehen partean, Cro-Magnon deritzen zaion arraza bizi zan. Gaurko gizonekin bada tarte bat haiegandik, baina beretan ditugu arraza sustraiak. Euskaldunok, gainera, badirudi nahikoa zuzen. Luis de Hoyos antropologuak zionez, Urtiagan (Deba-Itziar) arkitutako kalaberetatik, Cro-Magnon eta gaurko Euskal Herriko gizonaren tarteak zirela. Aranzadik ere antzerako ustea zuen, esaten zuelarik, Europako sorkaldean, euskalduna, ez zela gizon arrigarri bat, bertan eboluzionatua zalako. Euskaldungoak, arrazaz, kidekoa du Pirineo

sarkalde guztia, eta Victor Jacques belgarra izan zen *Type Pyrenées Occidentale* izena eman zuena.

Amaikatzok parre egiten zuen gauza hoiien lepotik, hemen arraza berezirik ez zala ta. Izan ere, arraza berezirik inun ez da, berezitasunari indar zehatz bat eman nahi bada. Beltzen artean ere tribu batetik bestera desberdintasunak daude, eta haien eta gure artean bada mailarik aski guztion artean enbor batera lotzeko. Eboluzioaren legeak aski zehatz ezagutzen diranetik inungo arrazagaitik ezin geneza esan besteendik zeharo bestelako danik. Baina Aranzadi eta bere ingurukoak aipatu zituzten bereizkuntzak, ongi eginak zirela agertzen dizkigute geroztik jarraitu duten azterketak. Eta errazoi haiek indartzera etorri dira odelean arkitu dira odolean arkitu diren bereizkuntzak, batez ere dala-koari buruz; behatetako marra-lorrazak dituzten dituzten desberdintasunak; eta feniltiokarbamidaz gus-tuen gaitasunean arkitu diran bezezitasunak arte. Gaiok erabili ziren 1965-ean Iruñean egin zen *IV Symposium de Prehistoria Peninsular*. Bertako lanak argitaratuak izan ziren *Problemas de la Prehistoria y de la Etnología vascas* izenez.

Eta gauza kasual bat hizkuntza berezi batek bere inguruan hainbeste berezitasun biltzea. Komunitate aparteko baten arraztoak dira. Historia, atzo goizekoa da oraindik gizonaren existentzian. Gure herriak herro zabalagoak izan zituen, geroago handiagoak estutuaz etorri baziren ere. Eta, aipatu ditugun arraza bereizkuntzak indartsuago arkitzen dire Pirineoko mendien erdi-aldeko aranetan, Bizkaiko sorkaldean baiño. Hizkun-

tzak, ordea; bestaldera izan zuen bere zoria. Aran-eko herriak behar bada honuntzagoko beste herri askok baino geroago galdu zuten euskera (edo euskeraren sende-urrena zan mintzaira), Erriojako Oja-castro aranean bezala. Oraintsu Aezkoa eta Saraitzan bezala (exenplu txikiagoan), Auritzen eta Orreagan galdu ondorean haruntzagoko aran haietan oraindik bizi dela. Eta, bestalde, Luzaiden oraindik indartsu arkituko dugu, Be-Nafarroako herriekin har-eman estuagoak dituelako. Hor ikusten da muga-politikoen gaindi zer indar duen hizkuntzak eta etnia berdinetikako herriak duten elkar beharra. Era bereko fenomenua arkituko dugu Zugarramurdin edo Urdazubin. Erronkari eta Saraitzuko herriak, lehen har-eman gehiago izan bazuten ere, euskera bizirik zuten artean, gaur ere oraindik Ibar-exkerreko larraintar eta Santa-Graztarrekin edo naiz biarnotarrekin, elkartasun handia dute, ohiturak eta bizitza moldeak hortaratzen dituztelako; gaur, hizkuntzaz aldatzeaz eta mugak ebakitzeaz, elkarretarik hurrunduaz dijoaz.

Ikusi Biarnoko Eskiula-gaitik zer dion Txillardegik *Huntaz eta Hartaz*-en 49-garren orrialdean. Eskiula euskaduna dalarik zuberotar sentitzen da eta ez biarnotar. Hor agiri da mintzairaren indarra.

Txillardegi aipatu dugunez, eta arestian estrukturalismoa, huntaz jakin nahi duenak ikus beza bere lanetarik «Hizkuntza eta pentsakera», *Branka*, lehen zenbakia, 1966, eta «Estrukturalismoaz zenbait hitz», *Jakin*, 29 zenbakia, 1968. Bera baita gure artean gai hau onduen estudiatu duena.

Estrukturalismoa hizkuntzeri erantsirik estudio zehatzak egin dituztenen arteko ditugu Saussure, Trubetzkoy, Vossler, Levi Strauss, Jespersen, Martinet, eta abarrek. Eta ez pentsa hizkuntza nagusien dako bakarrik balio duenik, handi eta txiki hartzen ditu bere barnean. Gainera, bizierazteko errazoia emanez.

Estrukturalismoaren gaia oinharri harturik egin zuen R. Piñeiro López-ek gailegu Akademiarako sarre-rako hitzaldia *A lingoaxe i as lingoas* (1967), hitzaldi horretan esaten dituenetarik, dena bada ere oso interresgarria hasi goitik eta bera, har ditzagun hizkuntzalarari honen zatitxo bat, bere ikus moldea adierazteko: «O «pobo» e a unidade natural de convivencia, a «cultura» é a súa forma i a «lingoa» é o seu vehículo. Os distintos pobos, as distintas culturas i as distintas lingoas son as realidades concretas que corresponden á unidade ideal que nós chamamos Humanidade. A Humanidade realizase a través dos pobos, a través das culturas, a través das lingoas.» Hau da: Herri bat bizitza elkartasun natural bat da, kultura bere forma eta hizkuntza tresna. Herri bakoitza, kultura bakoitza eta hizkuntza bakoitza Humanidadea deitzen diogun ideal batasunaren errealdade konkretuak dira. Humanidadea herrien gaindi, kulturaren gaindi, hizkuntzen gaindi egiten da.

III

MUNDUKO INSTITUZIO NAGUSIAK HIZKUNTZEN BIZITZAREN ALDE

Hizkuntza zaharren bizi nahia ez da guri bakarrik dagokiguna. Gaur, batez ere gaur, kultura berrien eraginez, eta zientzia berrien emaitzez, munduko hizkuntza guziak nabari dute bizi nahia. Lehen, unibersalidadean izenean, hizkuntza txikiak baztertzea eskatzen zen, erresuma txikietan bakarrik mintzatzetik aparte, kultura modernuak bereganatzeko oztopua zirelako. Gaurko linguistika berriak beste giro bat eta beste uste bat dakar. Gaur eztago hizkuntzarik baztarterik. Eta honetarako era askotako errazoiak dira. Hoietariko batzuek geroako ikutuko ditugu, eta orain goazen munduko elkarte nagusiak zer eta zergaitik zabalduak dituzten beren agiriak.

Jakina, estadu batzuek entzun-gor daude. Anitzek ez diote eragozpenik jartzen beren barnean dituzten hizkuntza txikiari, baizik laguntza ematen diote biziaz

iraun dezaten; beste batzuek indartzeko laguntzak eginalakoetan ematen dizkie; eta badira beste batzuek eskubide guziak ukatu eta galerazten dituztenak; beste maila bat ere bada oraindik, hitz onak eskeinduaz aridirenak, baina eskoletan sarrerarik eman ez, ezta ere irrati eta egunkarietan, eta alde egiteko propagandak ere azpijanez galerazten dituztelako. maltzurki laguntzen diote azpiratutako hizkuntza hoieri, laudorioz gainera, beren agonia triste eta luzean hil ditezten.

Prolema hauek behar bezala ez azaltzeak eta ez erabagitzeak, gizonen arteko diferentzien amiltegiak sakonagotu dituzte, elkartasunera urbildu beharrean.

Ardura beharrezko gertakizun larriak behartu zuten ONU bera 1948-an *Gizonen Eskubide-Agiria* egitera. Gizonaren eskubideeri dagozkion era guziak hartzen ditu bertan, eta beste zenbait gauzaren artean aipatzen du, bigarren artikuluan hizkuntzen diskriminazioari buruzkoa: «Gizon guztiak balia ditezela agiri honen eskubide eta libertadeekin, ezertariko bereizkuntzarik egin gabe arraraz, kolorez, hizkuntzaz...»

Hizkuntzari buruzkoa, zehazki, Unesco arduratu zen lan sakon bat gertatzen. Bildu zituen soziologo, linguista eta pedagogo, ekipu batean, eta estudiantu zituzten hizkuntzen egoerak, hizkuntzetatik sortutako herri prolemak, eskoletan zer-nola zeuden hizkuntza desberdinetako haurrak, eta estudioaren zertzeladak, eta huntatik ateratako erabagiek oinharri, beren gomendioak emanaz, lan oso bot argitara zuten *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement* izenez, 1953-an. Urrengo urtean, espainolera itzulia agerrera zuten,

baina hemengo liburu-dendetan ez zan ikusten ahal. Beraz, bada ordua prolema aurrez-aurre ausarti azaltzekoa. Gaur gure herriak dituen prolemetarik nagusienetako bat da noski. Bertan jokutzen dugu gure hizkuntzaren etorkizunarekin batean, gure herri barnean bizi geranon artean elkarrentzako errespetua. Demokrazia-
ren oinarririk txikienak eskatzen bait digu elkarrekiko eroapena. Izan ere, zeinek irabazten du hizkuntza zahar bat heriotzera bidean jartzean? Bere heriotzarekin ez dut uste inork irabaziko duenik, eta bai berarekin batean herri baten kultura, jatorrizko kultura, galanki murriztu. Eta, bestalde, elkarren arteko gorrotu eta ikusi-ezinak ugaritu.

Gizontasunak bultzatzen gaitu euskerak beste hizkuntzak hainako esku bideekin jabetzeko lan egitera. Gauden egoeran, euskerari erderaren haina eskubide ez ematea, ofizialtasunean, euskeraren kontra egitea bezala da. Jokera sano batek bilinguismoa eskatzen du, jakina. Bilinguismoaren arlo hau, hauzi sakona dugula? Bai noski. Seriozki aztertu behar dugun hauzia. Baina ez oso gaitza dalako irakaskintzan eta gainerakoan. Kontu honetan ez dugu ezer inbentatu beharrik, zeren beste nazio batzuek aspaldi inbentatua dute eta urte askoko esperientzia. Kopiatu besterik ez dugu, kopiatu, gure industriak beren lanekin egiten duten bezala.

Penagarria da, kaltegarria ez bada, inoiz prolema hauekin arduratu ez direnak ere, bat-batean, hauzi haue-
tan muturra sartzen dutela, hala-holako aburuak agertzeko. Ez dugu zalantzarik, gauzak, naitasunez eta ja-

kintasunez egin behar direla, grina txarrak eta alderdi setatiak alde batera utzita.

Euskaltzaleori maitasunik etzaigu* falta, eta grinak norainokoak diren geuk gure buruz ezin geneza neurtu hauziaren berne-muinean gaudelarik. Horregaitik diot, gai huntaz hor dugu Unesco-ren aburua.

Unesco-k, bere azterketa ondorean argitaldu zuen agiri luze eta sakonak herri guziak beren hizkuntzak zaintzea eskatzen du, jatorrizko ohituren gordetzailerenez, eta horrek kultura berezien nortasuna ematen diotenez, herri bakoitzak berari dagokion morala eta kulturaren eue iszlhkuntza dalako. Gizonen arteko eroa-penarentzat ere beharrezkoa dala esaten du. Horregaitik jartzen ditu normak eta erregelak haurren eskolak zer-nola eraman. Batez ere lehenengo mailetan, gurasoen hizkuntza soilarekin, geroago beste hizkuntza zabalago edo noranaiko bat sartzen joatearen kontseilua emanez.

Zoritxarrez, bizi geran mundutxo honetan, ez-jakinean bizi gera. Bilinguismoa eskatzen dan bakoitzean, handik eta hemendik mila iritzi merke sortzen zaizkigu, euskeraren kontrako sasikumeen jokoak bideratutako uste usteletan erroturikoak. Ezer esateko duenak, lehendabizikoz lan hoiek ezagutu behar ditu. Gainerontzean hobe du isilik egotea, zabarkerizko hitz ergelez iruzur egin gabe.

Gai huntaz, 1966-ko agorraren 17-ko «Destino» aldizkariak ekarren Santiago Nadal-en lan jakingarri bat. Bertan zion: «Ez gera ahalegindu behar Espainia

monolinguista bat ikustera, inoiz ez baita izan. Ez eta ere Katalunia zeharo katalanezko mintzairazkoa, aspaldiko mendeetan ez baita izan... Baina, penagarritzkoa de katalanari eskoletarako egiten zaion hutsunea. Momentu bat heldu dala, esan dezagun kondairaren aldetik, hutsune hori bete beharrezkoa.»

Nadal-en iritzian, Espainiaren batasunerako politika errazoiak ere ez omen dira aski Kataluniaren hizkuntza baztertzeko. Zeren, Irlandari, bere hizkuntza galeraziarren, bere eskubideen indarra ez ziotela galerazi. Eta, kataluiniera betidanik zutik egon delarik horrelako prolemen baino lehenagotik eta beren gainetik; zergaitik ez lagundu? Espainia inoiz izan ez denez hizkuntza bakarduna, beharrezkoa zaiola, Estaduari, bere barneko hizkuntza guzieri begiramena.

Baita ere, esaten zuan, askok aipatzen dutela mundua hizkuntza bakar batera dijoala, baina horrela mintzo direnak jakin behar dutela gauza hori oso luzerako dala, eta oraindik erabakitzeak ez duela ezertarako balio. Eta, bati bultzaz ekitekoan, aurrerantzean, ingelesarekin pentsatzen jarri beharko gerala, eta ez bestekin. Bai —zion idazleak—, bigarren hizkuntza bat beharrezkoa zaigu munduan geroago eta estuago diran har-emanetarako, baina gauza zihurrik eta funtsezkorik eskeintzen ez zaigun artean geron mintzairari ez diogu hiltzen utzi behar.

Geiago esango nuke: Unesco-ren azterketa hoiek ez zirela alperrikakoak, ez txantxetakoak. Han ere, irakaskintza gurasoen hizkuntza oinharritu behar zala zion. Ondorean bigarren hizkuntza bat erakusteko. Bi-

garren hizkuntza hau Europan zabalkunde gehiago zuena izan zedin. Hau da hitz batean: jatorrizko hizkuntza eta unibersalago bat. Eta ez batekin bakarrik unibersaltasunera jotea.

Borondate onik bada, euskera, erderaren kontra jokatatu gabe salbatu behar dugu. Bestela, zertako da ba, mundutarrontzat, Unesco bezalako instituzio neutral baten kontseilua?

Geroago, Batikano 2-gu. Konsilioa izan genuan antzerako iritziak zabaltzen zituena. Esaten zuelarik: «Gurasoak dira, guzien aurretik, beren haurrak has-teko eta haiei erakusteko eskubidea dutenak» (I. 13). Euskaldun gurasoentzat ez ote dira hitz hoiek? Obligazioak jarri dizkigute, baina eskubiderik ez dugu. Eta uste dut, izango ere ez, gerok hartzen ez baditugu.

Hara gehiago: «Kristau-moralak erakusten duan bidez osatutako mundukera berri batean, ez da zillegi herri txikien kulturari eta hizkuntzari buruzko bereiztasunak agirian, naiz eskutuan, zapaltzea» (BAC or. 833, 20). Nork behar du gehiago herriak anaitasunean bizi ahal izateko?

ONU, Unesco ta Batikanoaren irizpideak, euskerak ere bere alde ditu. Orain, gainerakoa, euskerarekin zer ikusia dutenen edukazioan, kontzientzian eta gizontasunean dago hauzia.

Munduaren bake-biderako eta gizonen anaitasunerako bai ote da beste instituzio nagusiagorik? Erlijio aldetik badira beste batzuek ere, Batikanoa bezain handi eta garrantzi ez izanarren, bainan hemen, gu bizi

geran tokian, denok omen gera katolikoak. Beintzat horrela bataiatu ginduzten, eta giro hori nabaitu dugu gure inguruan. Beraz, erlijioaren aldetik, ezin uka gure instituzio nagusia hura ez danik.

Berriki dugu oraindik ONU berak minorien alde agertu duen agiria. 1967-an, New York-en argitara zuan ingelesez, frantsezez, ruso eta espainolez, bere izenburu *Minorieri babes*a. Hemen ere berdina gertatzen zaigu, guretzat legezko dagoana, ezta legezkoa; zilegi behar zuena debekupean dagoelako. Espainolezko argitalpenari jarraiki, euskera hain gogozko ez duten hauek ere ondo enteratzeko bezala, holako izenburua eta ondorea dituela: *Protección a las minorías* (Medidas especiales adoptadas en el plano internacional para la protección de grupos étnicos, religiosos o lingüísticos), Naciones Unidas. Nueva York, 1967. Bere zehaztasunetan sartzera luzeegi joango ginake gure adierazpenetan eta aski izango da bere muinaren berri laburki ematea. Lehen partean lege eta aginduen gorabehera guziak dakartzki, noiz eta nun erabagiak hartu ziren aditzera emanaz, eta bigarreanean zenbait nazio eta erresuma edo estadutan hartu behar izan dituzten neurrien berriak. Guk euskeraren aurrean ditugun prolema berberak eta antzerakoak arkitu genezazke liburuaren lehen parte hortan (bigarren parteko zenbait erabagi gure hauzien soluzio izan daitezke), 4-gn. or. agiriaren errazoi jeneraletan, 10-gn. or. lehenengo eta bigarrenengo artikuluetan, eta 16 eta 17-gn. or. lehenengo eta hostgarren artikuluetan. Lan honetan, hizkuntzarekiko diskriminazioa herrien genozidio barnean

sartzen dira, eta garbi asko jartzen du herri bakoitzean bertako hizkuntzak eskoletan tokia behar duela esanez.

Gu, badirudi desiertoak predikatzen ari gerala, etxekoeri ere konprenitu eragin ezinik.

Bestalde, huntaz sentitu, pentsatu eta arduratsu lanean ari geranok, naturalezak berak emandako eskubidea defenditu beharrez arkitzen gera gizonen (gizon batzuen) kontra.

Tovar-ek, bere azken liburuan, *La lucha de lenguas en la Península Ibérica* (Madrid, 1968), gure hizkuntzaren egoera aztertu ondorean, hara zer dion: «En un mundo moderno sólo los medios modernos (escuela y grados superiores de educación, radio y televisión, etc.) pueden asegurar la conservación de la lengua». Beraz, legezkoa da gure herrian hoiek eskatzea. Baldin, denok osatzen badugu nazioa, eta ez dago dudarik denok obligazioak ditugunez. Guztiok osatzen dugun elkargoak ezinezkoa bait da batzuek bakarrik izatea denok eskubideak.

IV

EUSKERA ESKOLETAN

Euskera Euskal Herriko eskoletarako eskatzea, askorentzat, badirudi beste munduko gauza bat eskatzea dala. Ezin emanezko gauza bat balitz bezala. Ezta gehiegizkoa: euskerari, naiz katalanari edo naiz gallegoari, munduko edozein hizkuntzak duen eskubidea eskatzea. Eskubide hori eskatu beharrik ez genduke legezkoa ez balitz. Giza legezko demokrazia batean hala behar luke; guk gure prolemak erabaki. Baina guk zer behar dugun besteeri eskatu behar zaionean, ortik sortzen dira oztupoak, legezkoa bere bidean aurrera eramanean ahal izateko. Bada hau ere. Nere etxeak zelan behar duan auzokoak erabaki behar. Horrela izan ez balitz, ez genduan izango eskatu beharrik, Diputazioan edo geure artean erabaki eta kitto. Bainan... kentzen ez badugu. Geurea behar lukearenakin jabetzen ez bagera, nekez egingo dugu gauzonik.

Euskal Herriko hiru probintziak, 1839-an beren fueroak galdu arte, eskolak herrien udaletxearenak izaten ziren, ez Estaduaarenak eta ez Diputazioarenak. Nafarroan ere berdin, beren Korteak 1828-an bukatu arte. Ordura arte, gehienak erderaz baziran ere, asko ziran euskerazkoak eta batez ere bilinguismoz eramaten zirenak. Ezagunak dira Luis Astigarraga eta Agustín Pascual Iturriaga beren orientazio pean gertatuak, Gipuzkoan, probintziako batzarren laguntzarekin.

Fueroen akabantzatik gerora ere oraindik orduko zenbait sistemak iraunarren, orduan galdu ziren irakaskintzako eskubideak eta orduan erori Carlos III-garrenak jarritako zepuetan, eskolak erdera hutsera behartzeko. Zehazki, *Real Cédula de 23 de junio de 1768*, Carlos III-garrenak agindua, lehenengo eta bigarren mailako irakaskintzak (enseñanza primaria y secundaria) eskola guztietan egin ditzatela «únicamente en lengua castellana». Eta, lehenago ere, isilpean, era horretako aginduak emanak zituzten Espainiako erregeak, gaztelerari bakarrik bidea emanaz. Adibidez, begira 1717-an Felipe V-garrenaren agindua Soldevila-ren *Historia de España-ren* bostgarren tomoak 333 orrialdean dakarrena. Gero elestunez egin dan lan negargarria askok ezagutu dugu. Maiz bertakoak txarren zirela.

Eta asko dira esaten digutenak estadu batean bi edo hiru hizkuntza kaltegarri direla. Ez dakit norendako kaltegarri, batentzako izan ezik. Baina, ondo pentsaturik, zertako kaltegarri bakar horrendako? Besteak menperatze horretan ez ote du bere barneko bakea galtzen? Bai beintzat besteen konfiantza eta errespetua.

Suizan, adibidez, lau hizkuntza mintzo dira; bost mila persona, 40.000 kilometru kuadradian bizi dira, Espaniaren hamargarren partea. Alemanez ehunetik 70 mintzo dira; frantsezez, ehunetik 20; italianoz, ehunetik 8; retikoa, ehunetik 2. Eta diferentzia hauek ez dute sortu hizkuntza prolemarik; baizik elkarren artean batak-bestearena ikasten alegintzen dira, eta eskoletan ere hortara laguntzen diote. Berentzat pozgarri da hizkuntzen aberastasun hori, kultura iturburuen emaitza ugariagoak dituztelako, eta emaitza hoiek espirituzko indar berezi bat sortzen omen diote aurrerapeneri begira. Alajaina! Iritzi berdinekin bizi gera.

Hemen euskaltzaleok, asko sentitzen dugu gure hizkuntza horren nahastua ikustea politikarekin. Nahiago genuke politika gabeko biziera edo politika guzieren laguntza. Politika ez al da bizitza galeraziaz itto nahi gaituana? Baina inundik ere politika ona indoren menperatzaile dana.

Gai haueri buruz, bizpahiru urte dira Francisc de Borja Moll hizkuntzalariak Mallorca-ko egunkarian zenbait artikulu idatzi zituana. Harek zionez, prolema gabeko Espainia zela antolamenaren erarik aukerakoen prolemak eurak ez ezagutzeko eta erabagi gabe gelditzeko. Uste hori ames arin bat besterik ez dala, zion. Azaleko ur bare hoi en azpitik bizia zijoala, eta egunen batean uste-gabeko zurrunbillo batean arkituko gerala, eta, orduan, antolamen era hoiek ez dutela balioko eta berriz hasi beharko gerala prolemak aztertzen soluzio berriak arkitzeko.

Jarrantzen zuan esanez: jende askok uste omen du iritzi hoiek katalan eta euskaldun «txoro» batzuen artean bakarrik direla, baina ez dela horrela. Izen handidun asko izan omen dira iritzi honetakoak —zion, F. de B. Moll-ek—, Azorín berak ere ikuspide hori zuela. Dala berrogeitamar urte, Azorín heldua eta pentsaeraz ondo jantzia egoanean, Madrilgo «ABC» kasetan idatzi zuan artikulu batetik atal hauek jasotzen zituen, hartaz gogorazteko:

«Ezin diteke nahastu eta kideko jarri Estadua eta nazioa. Espainian Estadu bat dago eta nazio asko. «Nazioz» mintzatu dira beti klasikoak —Lope, Gracián, Cervantes— adierazi nahi zituztenean katalanak, euskaldunak, gaztelarrak, gallegoak, t. a... «Katalunia nazioari» —era hortara bereziturik esateko— agertzen du bere begirapen ona Gracián-ek...

«Estadua da agintariek erresuma bat edo bat baino gehiago gobernatzeko jartzen duten maila. Nazio batek, zenbat eratako adigarriak sentimenduz, ideiaz eta sinismenezko izatez ditu nazio batek! Nazio bat kondaira, hizkuntza, azturak, oroipenak eta asmu oparigarri erresuma alkarreak... Nazio bat herri baten giroa da, mendez-mende belaunik-belaun girotua, zeruagaitik, argiagaitik, paisajeagaitik, etxeagaitik, geure haurtzarotik ikusi ditugun gauzagaitik. Nazio asko elgarturik bizi diren Estadu batean, nola hitz egin genezake hizkuntz nazionalerik? Nazio hoietariko bakoitzak —Espainian gertatzen den bezala— bere hizkuntza badu, guziak izango dire nazionalak era berean. Eta beste gauza bat izango da Estaduaren hizkuntza, Estaduaren politika eta ami-

nistrazioaren bizitza hobe eta errazago baterako. Ez dugu ikusten abertzaletasunez zer ikusi zuen, abertzaletasunik zindoenak ere, Estadu baten barruan hizkuntzak beren bizi-bidea libre izatearekin. Estaduaren hizkuntza ofiziala izan daiteke egokitasunaren hobe beharrez; inoiz ere ez abertzaletasunaren zer ikusiz...

«Politika bere sentzunik gorenean, gizartea bere ikaspenik berrienetan, gerrate honen adierazpen beraiek (lehendabiziko munduko gerratea), Estadu baten barronean dauden hizkuntz nazional iraupenez irakasten digute libertatea ez-ezik indartu beharra... Berakin, uste danaren kontra, Estaduaren elkargoa indartuko da eta espainolen artean elkarganako hartu-emanak bizkorragoak izango dira».

Eta, bukatzeko, zion Moll-ek: Azorín-en hitz hoiek ez dute esplikazio beharrik, bakarrik, gogoraziko genuke Azorín ez zala katalan edo euskaldun «txoro» hoietako bat, baizik gazteleraren hitz-lauzko maixurik nagusiena. Ondorean, Espainia guziko herri hizkuntzak eskoletara eramatearen alde egiten du B. de Moll balertarrak.

Ez al dira arestian Suiza gaitik aipatu ditugun fenomenu ber-berak?

Kontu hauetan, ordutik hona, aurrera egin beharrean atzera egin dugu. Harresi handiago bat jaso da Espainiako herrien artean eta nekezagoa jarri da elkar ulertzea. Aurreak erakusten digu atzea nola erabili. Euskaldunoi, orain arte ikusiak erakusten digu, ezeri jaramonik egiteke geure bidean aurrera jokatzea, herri bezala iraun nahi ba dugu.

Ikusten danez, euskaldunok euskerari hiltzen utzi-ko bagenio ere, Espainiako hizkuntza prolema ezta hemen bukatzen. Munduko erriak, berez dijoaz geroago eta har-eman estuagoetara. Gaur, Europako edozein herritan, Ingalaterran, Alemanian edo Errusian izan ezik, goimailako jakintzetan sakonki estudiatuko bada, tekniku eta zientifikuak beharturik daude bilinguistak izatera, beharturik hiru nazio hoietako hizkuntza bat ikastera, eta bigarren mailako frantsesa, sueziarra, espainola edo italiarra. Hirugarren mailako hizkuntzen artean ditugu Europako herririk gehienak. Beraz, gauzak hortara ikusita, behartuak gaude bi edo hiru hizkuntza jakitera. Zer hobe guziok elkarri bizitzen laguntzea baino? Guziok elkar errezpetatzea inor menderatzera behartu gabe, uste dugu, bidezko bakarra dala.

Bestalde, gure herri askotan haurren ikastaroetan prolemak daude haur euskaldun hutsak direneri gaztelera irakatsi nahirik, ulertzen ez dituzten gauzak zer direnik ere gabe buruz hartzen. Prolema handi eta ugarioko oso ondo estudiatuak dira Gaur, S. C. I. dalakoak Gipuzkoako lehen mailako eskoleri buruz egin duan informean. Egian hain bizi agiri-agirian daudelarik ere ez ote dugu okerrak zuzentzeko biderik lortuko?

Besteen ordenarik eza salatzeak eta zigortzeak zentzu gutxi du gauzak zuzentzeko daudenak beren egin-tzak hobeto betetzen ez badituzte.

Noizbait asetuko ote gera aspaldiko egarri huntaz? Euskaltzaindiak, 1921ean, here *Lenengo euskalegune-tako itzaldiak* Durangoko urian egiterakoan, F. Belaus-tegigoitia-ri eskatu zion txosten bat gerta zezan *Euske-*

razko eskolak zelan bururatu behar ziren zehatz-meatz
estudiatu agertuko zuena. Lan hura bururatu zuen
eta goian aipatzen den izenezko liburu batean argitara
ere bai, baina Euskaltzaindiaren gogoko helburu hura
oraindik betetzeke da. Kontextu hura, praxisean, lehe-
nean datza. Bainan katalan eta gailegoekin egin dan
elkartasun berrik, esperantza berriak dakarzki. Gutxie-
nez indarraren errespetuak emango diona.

V

EUSKERAREN BATASUNA

Euskera idatziaren batasuna, premiazkoa ez-ezik behar-beharrezkoa dugu. Lehen herri txikia geralarik, gainera ezin geneza zatiturik jarrai. Euskalkien salbaiderako ezin dugu euskera bera arriskuan jarri. Eta deramagun bidetik, iduritzen zait, euskalkiak hil beharrean arkitzen gerala euskera bere biziko bada. Txerto zehatzen premian dugu hizkuntzaren osasuna. Handiagoak inguraturik geranez, aspaldi beren dialektoak hil zituzten handiagoak, beren aurrean defenditzeko batasuna dugu harma bakarra.

Hau da, magalak utzi eta enborrarekin jabetu. Euskal Herri guztian ahalik zabalen konprenitu ditzakean mintzaira eratu. Elkarrengana hurbiltzeak anaiago eginen gaitu. Eta anaiago egiteaz, herri kontzientzia indartu. Hau da, abertzaletasun sendoago bat lortu, eta

honen neurrian etorriko lirake hizkuntzaganako ondatsunak.

Gerediaga elkartearen dei hartan esaten genuen bezala, literatura mintzairaren batasunerako oinharriak, herri denak, tradizioko literaturatik eta herrien mintzaira biziaren artetik abantailaz egin dute. Dialektoen gaineratik indarberritu, dialektu bat bedera beren muina izanaz.

Herri baten estekadurak gordetzeko behar da literatura mintzaira bat. Euskalkien indar guziak batasun horri ori egiteko bildu behar ditugu. Bedi batasuna, euskalki ororen jo-muga.

Literaturak ematen die hizkuntzeri nortasuna, indarra eta prestijioa. Eta ez hori bakarrik, baita bizitza luzeago baten laguntza ere. Saussure dugu gaurko hizkuntzalaririk handienetako bat, handirik bada, eta bere ustez, hizkuntzari, literatura lantzen ez danean, bere oinharrien indarra ukatzen zaiola eta aldatzera eta heriotzarako egon ezin bat izaten duela; baina idatziaz lantzeak indarra eta gainera berdintsu gordetzea (Saussure, *Cours de linguistique générale*, Paris, 1966. 193 orrialdean). Eta, euskal literatura zerbait ezagutzera heldu geranok badakigu euskal idazle zaharrak elkarrengandik hurbilago zeudela, eta gutxi lantzeak eta euskaldunak ez irakurteak ekarri digula euskalkiok elkarrengandik geroago eta hurrutiago joatea. Literaturan euskera batu bat bageneza, batu horrek eutsiko leizkioke euskalkieri elkarrengana ingururutzen, edo gutxienez gehiago ez hurruntzen.

Jakin kultura aldizkariak euskera idatziaren bata-

sunari buruz argitara zuen 31-32 zenbaki berezia (maiatza-urria, 1968), eta bertan dakarzki katalan hizkuntzaren errazoiak beren batasunari buruz; 1913-an E. Prat de la Riba-k idatzi zuen artikulu ederra (irakurri 109/111 orrialdeetan I. Beristain-ek euskeratua). Han ikusten dugu, katalanak, mende erdi bat lehenago hartu zituztela guk gaur hartu nahi ditugun bideak. Prat de la Riba-k artikulu luze horretan jartzen dituen errazoiak os-ösorik datoz gure prolema huntara.

Jakin-en zenbaki berezi horrek beste gauza interesdun asko dakarzki euskeraren batasunari buruz, baina nere asmua, une hontan, batasun horren beharra adieraztea besterik ezta. Eta behar hori argi jartzeko hari-harira dator katalanaren artikulu sakona.

Euskera, edozein hizkuntza bere egoera naturalean bezala, denborarekin aldatuaz, euskalkiak elgarretarik urrunduaz, zatituaz, pikortuaz doaz suntsitu arte. Lehen bata bestearen hurbilago ziren euskalkiak, mintzaira desberdin bezala agertzen zauzku egun.

Herri-mintzairak duten indar berezia gorde behar da, egia da. Ahal delarik euskalki-adar bakotzak bere literatura poxi bat behar du izan, batasuneko literaturaren lehen mailak erakutsiko dituen, gorago jo nahi duenarentzat bideak idekiko dituen. Baina kulturadun batek, euskerakiko kulturadun izaitzekotz, behar du literarioa ere ezagutu. Baitere, euskera literario hori izango da beste edozein euskalki hobeki ezagutzerat heltzeko lagunduko duen zubia, eta bide batez, herriak elgarretarik gehiago sakabanatzen utziko ez duen lotura.

Herri baten egintzarik nagusienetariko bat da literatura indartsu batez jabetzea. Mintzairarendako aberastasunezko bizi-bide berri bat da, kemena eta indarra emanen derauzkona. Gure txikitasunean ezin bestekoa dugu.

Inoizko denboran euskera eskoletara eramatea lortzen badugu, ezin geneza euskalki bakoitzerako liburu bereziak gertatu. Hortara ez luke euskerak bururik altxako. Gainera, euskera batuan, liburu, izkribu, kaseta, aldizkari eta gainerakoak zabalkunde handiagoa izango luteke, eta elkar hurbiltzeaz ekonomia handiagoa euskera eta Euskal Herriarentzat.

Beste hizkuntzak aspaldi eginik dute hori. Askok estadiak beharturik eta beste askok beren borondatez bildurik. Katalanak, adibidez, erabagi hau hartu zituztenetik literatura anitz aberasten lagundu diote, eta hizkuntzari berari ere, kultura mailan, bestelako goitasuna ematen diote. Eskerrak horri, orain beste maila baten daude. Beren literatura hain da aberatsa, alde huntatik ez dute atzera egiteko beldurrik, eta gaur egun beren hizkuntza zientzien bideetatik dabil, gure oraindik literatura lantzen ari dan artean.

Bideak markaturik ditugu eta bertatik jarraitu besterik ez dugu. Honetan beharrezkoena guziok batera joatea da, diferentziak alde batera utzirik. Zeren oso gaizki ematen bai du bakoitzak bere gisara kantatzen duen koruak. Ezertan bat etortzera, hemen behar du. Bide batetik abiatzen galararik, gure korrontera erre-

zago ekarriko bai ditugu gainerako euskaldunak. Eta euskeraren salbabidea denok euskeraz aritzen geranean etorriko da. Esan dezagun gure lehenengo idazlearekin batean: «Euskaldun den gizon orok altxa beza burua!»

VI

EUSKALDUNOK EUSKERAZ

Gizonaren izakerak, kondaira zehar, bere gorakako eboluzioa eraman ahal izan du, hizkuntzari esker. Zeren, gizonak, bere bizitz iraupena ez dio zor berak fisikuk aldetik dituan dohain hoieri, baizik bere adimentasuna eta bere eratzaille ahalmeneri esker. Eta, gizonaren bi dohai hauek hizkuntzari loturik dijoaz.

Hizkuntzak damaigu, bere muinetan finkaturik, gure pentsamenaren estruktura.

Hizkuntza ezta elkar adierazle bat bakarrik, baizik pentsatzeko tresna ere bai. Hizkuntza ezin daiteke pentsameentik aldendu; pentsamena barnetikako hizkuntza da. Horregaitik, zer ikusi handia dute hizkuntzak eta pentsaerak. Pentsaerak berakin bai ditu sentiera eta irizkizuna, izakerari bere tajura berezia ematen diona.

Hizkuntza batek, zibilizazio eta kulturaren batasuna darama, herri baten jatorrizko iturburu batetik jasoa, horregaitik dute herrietako gizonak buruzko izakera eta jokaera berezia, elkargo bakoitzari bere gozoko nortasuna ematen diona, politikazko lokarri guzien gainetik dagoana, inoiz politika bidez, indarrean, etniazko estruktura hoiek austen badira ere. Behar bada or izanen ditu bere sustraiak hizkuntza gorde beharrez herriak bere politika bat jokatzea, bere jatorrizko izatea gorde nahirik, zenbait lekutan gerta ohidan bezala. Izan ere, legezkoa da gizon bakoitzak eta herri bakoitzak bere izatearen eskubideekin jabetu nahi izatea. ONU berak salatzen du *Gizonen Eskubide Agiri* haren (1948) bigarren artikuluan.

Hizkuntza da herri baten etnia gehien bereizten duena. Arestik bein batean esan zuanarekin nago: «Euskalduna izateko euskeraz egin behar da. Euskerarik gabe ez dago euskaldunik.» Hor dago izan edo ez izanaren kakoa.

Arbasoen hizkuntza estrukturan txertaturik utzi zigtuten aburu hori: euskalduna eta erdalduna, muga zehatzez ebakirik. Ustez aldatzeko, euskeraren muinetik irten beharra dago, erderaz edo jusgatu beharra; baina zentzundunak ondo daki inorenean ez dagoela norperaren guna.

Euskaldunak izateari utziko bagenio. Beste zerbait ginake. Bereziki izango genituke gure izatearekiko dohaintto ttipiak, dohain hondakinak, lehen izanaren oroigarri bezala; bainan ez herri batek bere magaletik sortarazi zuen nortasunaren indarrezkoak, baldin pen-

tsaeraren estrukturak, bere irizpide bereziekin, gordezen dituen hizkuntza galtzen badugu.

Izatez, norperaren hizkuntza, gurasoegandikakoa da, onduen konprenitzen dena, burua gutxien nekatuaz mintzatzen dena (sarri gure artean horrela ez bada ere, izan ditugun sarraskiegaitik), herri elkartu batentzat argiena, bere sustraikako izakera mendez-mende dato-rrerelako, herri elkargo baten har-emaneko delako, eta horrek giroten du norperaren izakera.

Gaur, hizkuntza bateko semeak, iraupenerako, beharrezkoa dute kultura, beharrezkoa beren hizkuntzan irakurten eta idazten jakitea. Eta, gurean gehienak dira ez dakitenak.

Aspaldi esan zuen Ibiñagabeitia zanak, euskaldunok ginela munduan analfabeturik gehien genduen herria, geure hizkuntzan ez irakurten eta ez idazten ez genekielako. Mingarria bada ere, ezta errazoi makala. Ezta aski eskolarik ezari kulpa guziak botatzea. Bere barnetiko gogoaz zerbait landua duen herri batek ezin du izan oztopurik.

Aspaldi hasi ziren euskaldunak alfabetatzearen premiaren hotsak, eta 1967-an mugitu zan hortara gazte andana bat Rikardo Arregi mutil azkarraren zuzendaritzapean. Euskaltzaindiaren babesean hutsune hori bete nahirik ekin zieten lanari gartsuki. Udara hartan izan ziren lehen ikastaroak, euskaldun izanik euskeraz ez irakurten eta ez idazten etzekitenentzat.

Gogoan izan, gaur dugun kalterik handienetariko bat kulturaz hurri ibiltearena dela, eta batez ere, euske-

raren zori txarra euskaldunok analfabetoak izatetik datorrela.

Ahulak gaude, bai, ahulak eta atzeratuak. Baina, inoiz ez da berandu. Milloi erdi urteren hutsunea dago hizkuntzen sorkundea izan zitekeanetik idatzitako lehenengo dokumentuak arte. Eta, Europako oraingo hizkuntza bizien literaturaren aberastasunik zaharrena ere ez dioa seirehun urtetik harat. Lanak bizkortu lezake gure mintzaira ahula ere, batez ere gazte bihotzetan garra denean.

* * *

«Euskaldunak euskeraz: idatzi, irakurri, hitzegin», slogan pean eta Euskaltzaindiaren babezean, laister zabaldu ziren alfabetatze kanpainak Gipuzkoan eta Bizkaian.

Euskaldunik gehienak beren hizkuntza ez dutela nahi esan izan digute. Beren gogoz baztertzen dutela guraso hizkuntza? Askoren leloa. Baina errazoiaren funtsean errotu gabea.

Kontzientzia, ikasbidez hartzen da. Estaduak ofizialki lagundu dituzten hizkuntzak lortu dute batasuna eta indartu dute kultura, ornitu dira kontzientziaz. Zein euskaldunek utzi du euskera euskal kulturaren kontzientziaz jabetu ondorean? Hizkuntza handiago batek oztoporik eta galerazterik jarri ezpaligu, eta kultura irakaskuntzak bideratu ahal izan bagenitu, ikustekoa litzake ia zenbatak uzten duen guraso hizkuntza.

Kontuan izan beste hizkuntza batean, beharturik, irakatsi zigutela eskola, maiz tautik ulertu ezarren. Hau

da mundu huntan handiagoak txikiagoari jartzen dion errazoi zerga: indar menperatzailea.

Hizkuntza handiagoa eta zabalagoa komeni dala esaten digute. Baina hizkuntza baten alde era askotara egin ditzake eta egiten da: batzuentzat aski da berena izatearen errazoi soila, beste batzuek munduan gehien zabaldua delako, bestek goxoa delako, edo latza delako; gustu guzietarikoak daude. Bakoitzak bere nahiaren neurrira har lezake. Gurari guztietara eratzten da hizkuntza baten ganako maitasuna edo begirapena. Eta, ez da errazoi gutxi, bizi dan bati iraunerazo nahia.

Hizkuntzen literaturarekin ere berdina jasotzen da: nagusia, landuena, gihartsuena, zerutiarrena, sakonea, teknikoena, zientifikoena, filosofuena, eta abar. Txirrean danean ere, maiz, aski da norperana izatea. Norperaren jatorriaren gunetikakoa. Norperanean arkitzen dugulako besterenetan ez dan gogo-minaren neurrizko zerbait. Bihotz legorretan arkitzen ez dan zerbait hunkigarri hori, gehienetan jakinduririk eza da. Eta inungo herriak eztu bururik jaso gizon zikoitzen gandik. Zikoitz hoietakoak ditugu beren buruak kulturadun jo eta norpere herriaren kultura ezagutzen ez dutelako, harro, euskera eta euskal literatura mespresiatzen dutenak. Bada anitz holako gure alorrean. Konturatzen ez direla, norpere herria ezagutzeke nekezagoa dala norpere burua ezagutzea.

Frutua emateko sustriaiak behar dira, sustriaiak, norperari dagokion lurrean ondo errotuak, baldin emango duena norperanetik emango badu.

Euskaldunen alfabetatzearen harira itzuliaz, esan beharrean gera gaur egun dugunik bete beharrik handienetako bat dala, euskaldunak euskeraz idatzi eta irakurri. Eta honetarako antolakizun berezi bat egin zuten R. Arregik eta bere inguruan bildu ziren gazte taldeak, oinharrizko erregela batzuek jarriaz, idazkeratik hasi eta gramatikazko bereizkuntza premiazkoenak erakusteko, eta era berean euskal literaturaren kondaira eta idazle hautatuen zatiak irakurtea. Denbora gutxian, eta ikasle euskalduna gehiegi nekatu gabe, euskerak berakin daraman hizkuntzaren aldetiko adierazpen indarra eta literaturaren herri labor baina aipagarriekin jabetzen da.

Euskaldunok geure literatura ere badugula esan beharra dago. Ez gu ibili geran eskoletan erakutsi digunagaitik. Baina ordua da jakiteko, euskaldunok orain arte geure literaturari egin diogun jaramonarentzat, literatura aberatsegia eta ugariagia dugula.

Hizkuntza zerbait esateko dan bezala, irakurtzen jakitea ere irakurtzen baliatzeko da. Beraz, eta aski euskeraz irakurri behar dala esatea, ezta aski euskaldunak alfabetatzea, gero zer irakurri ez badago. Horregaitik, alfabetatzen kanpaina hauek berakin daramate gure literaturaren herri ematea, bai lehengo mendeetakoa eta bai gaur egungo idazleena. Eta gauzak honela eratzeak eman dizkiote alfabetatze kanpaina hoieri hain ondore ona.

Orain arte inungo eskoletan erakutsi ez digutena eta hain geurea dana erakusten bai digute kanpaina hoietan. Euskeraz irakurtzeko ohitura gutxi edo batere izan ez

duten euskaldun guztiak igaroko balitzaz kursillo hoieta-
tik, geroan, eta uste baino azkarrago, bestelako etorkizu-
nik izango luke gure herriak kulturaren bideetatik eta
euskeraren bizitzan.

Bai, inoiz ez da berandu, eta «Euskaldunok euske-
raz: idatzi, irakurri, hitzegin». Zeren, euskeraz egitea,
Euskal Herriakin egotea da.

VII

EUSKAL LITERATURA

XV eta XVI-garren mendeko kantak heldu zaizkigu, osorik Bereterretxerena. Hauetan bi era arkitzen dire, literatura Erdi-aroaren azkenaldikoa, baina koblakari eta bertsolari legeetan eginak gehienbat. Egiazki, idatziari, Etxeparek eman zion ekintza 1545-ean argitaratu zuen poema liburuz. Mende berean Leizarragak itzuli zuen *Testamentu Berria*. XVII-garrenean lan ugariagoak eta aberatsagoak etorri ziren eta gorengo maila merezi duen Axular-en *Gero-k* 1643-an ikusi zuen argia. Ez ginake gaizki gaur argitaratzen diren txarrenak haiek bezin onak balira.

Errez esan izan da euskeraz ez dagoala libururik idatzita. Eta iritzi hau ez da auzokoa, baizik gure etxe barnekoa. Egia esan, auzotik etorriak egin zuen lehen-dabiziko lan serioa euskal literaturari behar zuen maila emango ziona: hau zen Julien Vinson, 1891-an *Essai*

d'une bibliografie de la langue basque-rekin euskera idatzia bere ilunpetik aterako zuena. Lehenago zenbait historilarik beren lanetan berri laburrak eman bazituzten ere Vinson-aren onduan txiki gelditzen ziren.

Geroztik etorri dira euskal literaturaren kondairak. Euskeraz, lehenengoa «Orixe»-k argitaratua nik dakidanez: *Euskal literaturaren atze edo edesti laburra*, 1927-an «Euskal Eснаlea» aldizkarian argia ikusi zuena. Eta azkenengo egin diren lanik sakonenak Mitxelena eta Villasante-ren *Historia de la Literatura Vasca*, bata 1960-an eta bestea 1961-ean argitaratuak. Gaur hain derrigorrezkoak ditugunak gure literatura ezagutzeko.

Antologiak maiz agertu dire, batez ere poemenak. Idazle hautatueneekin eginak dira Lafitte-ren *Euskaldunen Loretegia*, 1931-an agertua (bertsoz eta hiz-lauz, 1800-era artekoekin); Villasante-ren *Euskal Gramatika llabur eta Idazleen Pusketa Autatuak*, 1956-ean, eta lan bera osatuago arkitu geneza Omaetxebarriaren *Euskera izeneko liburuan*, 1959; Etxenagusiak eratu eta argitara zituen *Euskal idazleen lorategia* izenez, hizlauz, 1965-ean bizkaieraz eta 1967-an gipuzkeraz, multikopiaz eginak, eta haiek oinharri harturik «Hegosa»-k argitara berri du lan osatuagoa. Bertsuz berriz ugariagoak dira; eta hauen arteko bildumarik nagusia A. Onaindia-ren *Milla euskal-olerki eder* dugu, 1954-an agerreraia.

Baina euskerak inoiz izan badu literatura aldetik idazle ugari eta onik, garaian garaiko gaiari oraturik literaturaren ahapaldi guzietan, gaur ditu, noski. Beren izate eta lanen berri aski naharo emanak ditut idazle

katalogu eran argitaratu nuen *Escritores euskéricos*, 1968, izeneko liburuan.

Beraz, euskera idatzian bada zer irakurri, bada zer ezagutu.

* * *

Gure herri literatura beste edozein herrirena bezin aberatsa eta ugaria dela zion Mitxelenak bere *Historia de la Literatura Vasca*-n.

Gaurkoz, idatzitako literatura ere ez dugu hain hurri. Literatura landu edo kultista honetan, munduko azken bolarak modaz dakarrena edo bizitzak berak beharturik sortzen dijoan era berriko literaturatik emaitza askorik ez bada ere, ez uste izan eginezagaitik danik, baizik diranak nun argitara biderik ez dutelako gehiago da, gure argitaldarien zuzendariak lehenera gehiago begiratuaz bizi direlako edo, zeren batez ere poesian oraingo erderakoen zorrik gabeko lanak ezagutzen bai ditugu. Bestalde, argitaratzeen neurriak erakusten digu literatura languaen gradua: ilero bitik hiru liburura argitaratzen dira aspaldiko bost urte hauetan. Aldizkariak, berriz, ugariegi ere baditugu, sakabanaturik euskeraren indarrari eta batasunari behar bezala lagundu ahal izateko. Oso tristea da gertaera hau.

Baina, beti izan behar dugu gogoan literatura landua idazle bakoitzaren mende-giroz izan behar duela, egiaz indartsua eta interezgarria izango bada. Beti, haue-tarik hoberenak pasako dira geroan klasiku izatera, batez ere kondairazko balioegaitik. Baina, gaurko iritzi, etorkizunera begira, askozaz ere balio handiagoa du herri

literaturak. Zeren herri literatura erresuma bakoitzak bere iturburuetako sustraikakoa du, arbasoak mendez-mende ahoz-aho dakarrena. Inoiz aldatua eta purtzildua heltzen bazaigu ere, maiz hobetua, herriak bere gogora hezitua, herri beraren ispiritua nabari duela. Hor dago herriaren arima bilutsik. Ongi zion Rodney A. Gallop-ek bere *A Book of the Basques* liburuan: «...there are few things in which a nation reveals its character so fully as in its folk-literature» (...gauza gutxi dira nazio batek bere aztura hain naharo agertzen duena bere herri literaturan bezala).

Era honetako literatura aberatsa duenak ez du zertan lotsatu literatura kultista dalakoa aberatsagoa duten herrien aurrean, berena gutxi-etsirik. Axular-en *Gero*, gizon baten lana da, lan jakingarria noski gizon bat eta bere jakintza neurria, bere mendeko giroa eta hizkuntza idatzia estudiantzeko; baina herri literatura, ahoz-aho etorri zaiguna, herri oso baten sustraikakoa da, herriaren barne-muinetikakoa, eta honelako literatura ez du inoiz gaineratu gizon baten lanak, batez ere herri horren erraiak ezagutu nahi dituanarentzat eta, are gehiago, herri horren semea izanik bere jatorrizko izakera xehetasunez ezagutu nahi duenarentzat, zeren lehenago esan genuen bezala: norberaren herria ezagutzeke, nekezagoa bait da norpere burua ezagutzea.

Euskaldunen artean, lehen ele-zahar biltzailea, behar bada, Arnald Oihenart izan zen, 1657-an Paris-en argitaratu eman zuen *Atsotitz edo errefrauak eta gaztaroko poesiekin*.

Baina herri literatura baliatzen ingelesak hasi ziren XVIII-garren mendearen azkenaldera, eta haien jarraile alemanak XIX-garrenaren hasieran. Iberiako penintzula honetan, uste da, katalanak eta portugesak hasi zirela lehenengoz, XIX-garren mendearen azken aldera, R. Serra i Pagés (1929-an hilla) eta J. T. Fernandes Braga (1843-an jaioa) jaun hoiekin. Baina, beti gertatzen da ustea erdia ustela. Zeren gure Iztueta (1767-1845), beste agiririk ez dugun artean, izanen da lehen folklorista eta lehen ele-zahar biltzailea. Eta ez dago zalantzarik, lehenago Ingalaterran eta gero Alemanian sortu zen giroak bultzaturik egin zuela, bestela nekez da konprenitzean ordena beraren mailan zelan sartu zen.

Euskeran lana egitea beti da iluna. Ez baita euskera portugesa, gailegoa eta katalana bezin mintzaira errea gaztelerara edo prantsezera itzultzeko, bere moldeak latinetikakoak ez dituelako, haiek bezala. Eta, inoiz zerbait itzultzen bada ere, elkarrekilan hain moldekaitz direlarik, itzulpenean gelditzen naio balioaren erdia. Beraz, horrela gelditu zen gure Iztueta ilunpean, bere lehendabiziko liburu 1824-an argitaratzeaz geroztik etorri ziren zenbait atzerritar: Borrow (1839), Fr. Michel (1857), Bordes (1898), eta abar.

Aitortu beharrezkoa da kanta bilketak Chaho euskaldunak ere egin zituela Iztuetak baino lehen (1811-1858). Eta, bilduma naguzienetariko bat egin zuena Mauleko Sallaberry izan zen, 1870-ean argitara zuen *Chants Populaires du Pays Basque* izenez, euskeraz eta frantsez itzulpenez eta Pirineo mendiz-hemendik José Manterolak (1877-1878) *Cancionero Vasco*, euskeraz eta

gaztelerazko itzulpenez. Geroztik, Barbier, Azkue, Barandiaran, Dufau, Aita Donostia eta beste asko izan ditugu hilketa hoietan jarraitu dutenak.

Uste dut, gure literaturaren historietan ez dela behar bezala baliatu gure ahozko herri literatura hau. Bere teoriarazko mamia ondo adierazia da M. Lekuona-ren *Literatura oral vasca* liburuan.

Huntaz lanik nagusia eta sakonena Barandiaran-en *Hojas de Eusko-Folklore*-etan arkitu geneza gehienak «Añamendi» argitaldariak *El mundo en la mente popular vasca* izenez lau liburutan berriz argitaratuak. Baitere Azkue-ren *Cancionero popular vasco* eta *Euskalerraren Yakintza* liburuetan.

Aipamen berezi bat merezi dute hortan orain lanean ari diren A. Jorge de Riezu-koak eta A. Antonio Zabalak. Lehenengoa Aita Donostiaren lanak argitaratzen ari da, *Obras Musicales del Padre Donostia* izenez, eta ondorean bere folklore lanekin jarraitzeko asmuetan da. Gainera, *Flor de canciones populares vascas* (Buenos Aires, 1948) bildumaren gertatzailea dugu. Eta zihurki herri kanta zahar hauetan dugu gure poesiarik jatorrena ez-erik sakonena eta aberatsena, eta bai oraingo eta bai geroko euskal poetak, emaitza onik izango badute, bertatik edan beharra izango dute; gure poema nagusiaren barne-muina bertan bait da. Bestalde, A. Zabala egiten ari dan lana ere benetan txalogarria da, bertsolaritza dugularik gure herri literaturaren berezitasunetatik nagusienetakoa, penagarria zen kondaira zehar bertso hoiek galduaz joan beharra, nork jasorik arkitu ez zutelako. Noizbait agertu zen gure Zabala eta hasi zen bilduaz, ar-

gitaratuaz, ezagutaraztuaz, betiko galzorian zeudenak salbatzera. Bertsolaritzaren kondaira eta erregelak A. Onaindiaren *Gure bertsolariak* (1964) liburuan arkitu genezazke.

Aipatutako bilduma hoieri begiratu bat aski da gure ele-zaharra so aberatsa dala jakiteko. Lastima gure estudianteeri beren asignaturetan ez erakustea. Ezagutu gabe, zelan maitatu? Ikasi gabe, zelan jakin? Euskera pobrea dalakotzat gutxi-etsirik uzten dutenetarik zenbatek utziko luteke gure kultura eta gure literaturaz zerbait balekitez? Campión-ek zion bezala esango nuke nik ere, herri atzeratuak pitxirik hoberenak ere bota egiten dituztela, beren balioa zer denik ere ez dakitelarik. Hau ez ote guri gertatzen zaiguna?

Ahozko literatura dugu lekuko herri kulturaren iturburuena, zenbat eta hizkuntza zaharragoa iturburuak hainbat zaharrago eta hainbat errotuago herriaren izakeran.

Euskal olerkariak ere, funtsezko lanik egin nahi badute, euskal kanta zaharretako bideak aztertu eta urratu beharko dituzte, bertan oinak erroturik gaurkoan aritzeko. Gainera, kanta zaharrak erakusten digute euskeraren milla gauza berezi jolaski arituaz.

VIII

AZKEN HITZAK

Hizkuntzaren alde dijoazten errazoin puntu oro aztertutako ditugu. Gehiago luzatzeak ere bide beretik eramango ginuzke. Ez genduke hortik asko gehiago aurreratu. Komeni zaiguna, iritzi hauek herri euskaldunengan zabaltzeko, orain beren hizkuntza axolagaberik usten dutenen artean kontzientziaz jabetzeko. Aurrerantzean euskaldunak ez dezatela beren hizkuntza gutxietsirik baztertu.

Era berean emanen ditut euskera idatziaren zenbait herri. Gure literatura hain aberatsa ez bada ere, ezta uste dan bezin txiroa. Gaurkoagoa izatea, guri dagokigun gauza da. Literaturaren zenbait sail oso aurreratuak ditugu gaurko idazle berrien ekintzaz, baina jakintzaren bidetik oraindik arlo asko daudela beharrez, aitortu beharrean arkitzen gera. Euskerak badu barnetik indarra

karga hori errez eramateko, baldin euskaldunok bakoitzak bere bidetik ekinaz lan egiten badugu.

Liburu honetara jaso ditugunak jakinaz gero ezin diogu amorrik eman hizkuntzaren heriotzeari. Hori, axolabekeria litzake, eta inork ezin du neurtu axolabekeria zer nolako kalteak ekarri dezazken herri bati. Axolatasunez gainbehera abiatzean, luzarora, nortasun guztien ondamendira eroriko ginake. Eta, ez dugu esku-biderik arbasoegandik datorkiguna gure ondorengoeri ukatzeko.

Sorkundetik, bizitzak, gure bitartez dakarrena hobetzea edo ondatzea gure esku dugu, noski. Baina ez dut uzte galerazteko eskubiderik dugunik, gurea haina gure semeena dena. Egoerarekin jabeturik, gure erantzuna ematera behartuak gaude. Hizkuntzaren diskriminaziorik ez dezagun on har. Jokabide txar batek zapaltzen duena ez da bakarrik hizkuntza bat, baizik herri baten kulturaren tresna, herri izakeraren mamiaren zati bat. Era honetako diskriminazioa, ONU-ak, genozidiotzat hartzen bait du (ikus, *Protección a las minorías*, 1967, 4 eta 10 orrialdeak).

Hizkuntza bakarra munduan, maiz esan digutenez gure iritzien kontra. Gaur, zentzundunen artean, utopiatzat jartzen da. Hizkuntzalariak, jakintza horretan gehien arduratzen diralarik, gutxien sinisten dutenak dira. Gainera, hori arpegira botatzen digutenak ez dira esperanto dakitenak, ezta ere munduko hizkuntza bakarra eta herri bakoitzak hori eta berea proposatzen dutenak. Gu, konforme ginake gurea eta munduko bakar horrekin. Baina gaurko iritziak beste bide batetik dijoaz, ze-

ren gaur uste bait da munduko hizkuntza baturik izatekotan ere, gauzarik beharrezkoenetakako, klabez izango litzakeala. Errazoi lojikuen tresna bat baizik ez litzake izango, eta ez egizko hizkuntza bat bere zehaztasun eta bereizkuntza guziekin. Konputadore elektronikuen erara izango litzauguke hizkuntzagailu hau, hizkuntzaren tar-teko tresna bat, baina hizkuntza bere eginkizun guztieta-tik baztertuko lukeana ez, ezta gutxiagorik ere, gauzarik beharrezkoenak adierazteko baizik. Eta, hizkuntza, sen-tiazteko eta pentsatzeko ere bada.

Gaurkotasunez begiraturik, hizkuntzen balioak lekua irabazten dijoaz. Analitika edo azterbidezko filosofia eta batez ere existentzial filosofian garrantzi handia ematen zaie hizkuntzeri, batez ere Wittgenstein-ek sortzen «hiz-kuntzaren filosofia» eta Heidegger-ek agertzean hizkun-tza «izanaren gorde-lekutzat».

Azken berrogetamar urte hauetan, hizkuntza guzrien baliozko iritziak 180°-ko jira egin dute. Horregaitik, ahoa betezko errazoaia du Txillardegik, esaten duenean: «Erresumaren lehenengo instituzioa gaur hizkuntza da».

Gauzak honela direla: zer atera, zer erabaki?

Utzi dezagun axolakabe lasaiak izateari, geroan ahal-ge arkitzerik nahi ez badugu. Utikan, eskuak poltxikoan sarturik, ustelkeriaz, gure etorkizunez itxaropenez mintzo diren hoiek, berriketan jardutzeko bestetarako ez diren aho-zabal hoiek; maiz harro direnak, munduan hobere-nak gu generala sinisturik, egia esan, nik ez dute sinisten mirakuluekin, eta bai egintzekin. Gure errealitatea he-men eta orain jazotzen da. Momentu guzietako une ba-

koitzean jokatzeko dira gure izan edo ez izanaren interesak.

Hitz gordinak direla? Hala ere, gehiegizkorik ezta kondairaren une nekegarri honetan.

Beraz, eten gabe, etsi gabe, eutsi gure izate naturalari; ekin eta ekin, egun batean bide okerretara abiatu zen historia behar duen tokira eramaten. Gure poeta bikaineri adituaz esango nuke: Arestik ongi zion bezala: «bakeak euskerari kalte egiten bait dio»; zeren ez dedin gerta Azurmendik bere poeman ziona:

*Ba zihoan egun batez nire herria
bizitzaren bidetik... Eta gizonak
elkar begiratuaz esan zuten:
«Ba dugu bake; jarri».
Inork ez zuen erantzun:
hilda zegoen herria.*